


Goierriko berri



barra-barra

Gobernu Zuzen eta Eginkorra

EArekin GOBERNU ABERTZALEA



Ezkerretik eskuinera eta goitik behera:

ISABEL GALLASTEGI

RAFAEL LARREINA

NEKANE ALZELAI

INAXIO OLIVERI

CARLOS GARAICOETXEA

**EMAN
BOTOA**



**eusko
alkartasuna**

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**
Argitaratzailea:
"Goierritarak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gauean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 161463.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
Loinaz Agirre.
Erredakzioa:
Jon Arano, Mikel Albisu.
Publizitatea:
Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:
Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.
**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Joxe Begiristain, Aitor Calvillo,
Rufino Iraola, Aloña Galarraga,
Joseba Telleria, Mari Joxe Ma-
dariaga, Izaskun Salazar, Josune
Amondarain, Nagore Goiburu,
Koldo Zubeldia, Jakoba Erre-
kondo, Iñaki Amundarain, Ga-
bino Murua, Jon Aiestaran, Pa-
txi Iraola eta Aitor Artza.

**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANtza, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 3.700 ale. 3.300 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.**

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Zaldibiako Irazustabarrena frutazalea

Zaldibiatik Larraitzerako
bidean dagoen Otsaitza ba-
serriko Jesus Irazustabarre-
nak 42 urte ditu eta lan ordu-
tegiak kanpo, denbora guztia
bere gustoko etxeko laneta-
rako du.

Orain 22 urte hasi zen sa-
gar arbolak aldatzen. "Sagar
kontutan hasi ginenean ez ge-
nuen idearik ere, baina gaur
egun badakit sagarrondoa
noiz aldatu behar den eta zein
garapeneko arbola aldatzen
dudan". Bere seme-alabek
egiten dute lanik gehiena sa-
garra biltzen, e.a. Iraila al-
dean bildu dituzte eta neguan
garbituko dituzte zuhaitzak.
Klima aldetik arazoak omen
dituzte zenbait gauza ondo
ateratzeko: "Sanjuan saga-
rra Sanpedrotan jaten du-
gu", dio.

16 sagar-mota dituzte:
"Dauzkagun sagar mota
guztiak ez dizkizut esango,
baina batzuk bai: erreineta,

errezila, erreineta grisa, bel-
tza, Aragoiko erreineta eta,
noski, onena, erreineten
erregina". Jende gehienari
azken hau gustatzen zaiola
aipatzen digu. Beste bat Za-
mudioko sagarra deitzen
zaiona da; iaz halako 800
gramutako sagarra bildu zu-
ten. Txerremenak ere badi-
tuzte eta fruitaz aparte:
"gehiago esateko, lehen txe-
rriak, konejuak eta oiloak
izaten genituen, eta orain ar-
di, erle eta fruta klase ugari.
Eztia saltzen dugu ezagunen
artean eta, esan behar da
gainera kalitatean ez dugula
erreparatzen, baizik eta
kantitatean. Denbora ber-
dintsua ematen dugu ardie-
kin eta fruituekin, ardiak bi
aldiz jeitzi behar dira egu-
nean". Ardi gazta baino behi
gazta gehiago egiten dute.
Baserriko lanak bukaerarik
gabekoak dira.

 Koldo Zubeldia eta J.M.A.

Besteek esana

Kilometroak-en ekarlearenak

"Hasieran erotzat hartu
ninduten eta inork ez zuen
nire alde egin", baina berak
gogor egin zuen ideia horren
alde eta fruitua 1977an ospa-
tu zen Kilometroak izan zen.
(...) "Nik hasiera batetik esan
nien (Beasaingo) ikastolako
beste partaideei ordutik 20
urtera Kilometroak-era jende
guztia etorriko zela, eta gaur
(Legazpin) hau bete egin dela
ikusi besterik ez dago".

**Beasaingo Josu Erguinekin
"Egunkaria"n, Kilome-
troak 94 egunean.**

Juan Mari Jauregi

"Gobernadore honek badu
meritua. Españolista fama.
Abertzale burges ttipiek mar-
ginatua. Hala ere segi erre ke
erre. Eta azkenean logratu du.
Ttar, ttar, ttar, Euskalerriko
Gipuzkoan Gobernadore.
Arrapa zak hanketatik. Orain
dana debalde. Etxea, bule-
goa, argindarra, telefonoa,
faxes, telexa, kotxea eta bertan
izango den trasteria guzia.
Kontserbatzen ahal du pue-
toa. Ezin duela lehen bezala
soziedadean ibili? Lagunik
baldin badu joango ahal zaio
etxe berrira, armadunen aur-
ka egon denari beti, sozieda-
dean armadun español fun-
tzionariak sartu beharrik izan
ez ditzan. Lagunak holakotan
ezagutzen omen dira".

**Joxe Mari Ostolazak
"Egunkaria"n, 7-X-94.**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Eroski amoroski

Nork ez du ezagutzen Eroski? 25 urte! Eta horretara noa, alegia 25 urtebeteetan zein hankamotz euskararen erabilpena, ze pena! Oso motz izango naiz, begibistan baitago dena. Motz, oso motz. Neurtu bestela hau neurriaren lagunak zareten zuek. Eroski 25 urte amoroski: motz, oso motz.

Pello Sarriegi (Barrika-Bizkaia)

Ez gaitezen engaina

Euskara egunetik egunera atzeraka doa. Eta zergatik? Ez diogulako ihardunari ekiten, horregatixe. Baina nola? Eta zerrenda luze bati ekingo diozue. Eta nik, "bai, bai, baina guzti horietan xoxak poltsikuratzen ditugulako". Baina egunerokotasunean izugarrizko amildegi iluna agertzen zaigu, ez ala? Jendeak ez du sentitzen, sentipenean geratzen da, edota obsesioa baino ez du gidari, bestela esanda; okasiotarako eta harrokerietarako. Hutsa! Ai ze bestelakoa den sentitzea!

Ez gaitezen engaina lau datu pottolo lau haizeetara jaurtikiz. Gizakia ez da datua, beti ikaslea baizik. Ikasi, ikasi eta ikasi, baina beti. Ez gaitezen engaina, ze engainurako honezkero ez baitago lekurik. Ekin, ekin eta ekin. Ihardun, ihardun, ihardun!

Pello Sarriegi (Barrika-Bizkaia)

Goierriko hirigintza

Gipuzkoa *hiri* bat dela aldarrikatzen bada gaur egun, zer esan Goierri bezalakoeskualde batez. Ordizia, Beasain eta Lazkao batzuk besteengandik gertu egon badira betidanik, orain bat eginik daudela esan daiteke, eta hauekin Ataun, Zaldibia, Olaberria, Idiazabal, Itsasondo eta gainantzeko bailarako herriak.

Honela, Aralarko zenbait larreen ustiapenak amankomunatuak badira aspaldidanik, elkar lanean aritzea zabalitzen doa gaur egun. Eredut gisa, zabor bilteta Sasieta Mankomunitatearen esku. Hala ere, elkar lana beste alor askotara iritsi behar lukeela garbi ikusten da. Eta hauetako garrantzitsuenetakoa, hiri-

gintza. Ez du zentzurik, herri bat non bukatzen den eta non bestea hasten igarri ezin denean, bata-besteekin zer ikusirik ez duten Arau Urbanistikoak edukitzea. Nola liteke geure herrietako industrirako eremuak, etxebizitzetarakoak, kiroletarakoak, e.a., erabakiak izanak izatea aldameneko herriarenak eta orokorki guztienak kontutan hartu gabe? Eta mendialdeetako lurraldeetan eraikuntzek beharko lituzketen baldintzak, ez al litzateke komeni Goierri guztian bateratzea? Ala herri haundi eta txikietakoak bereiztea?

Nahiko arrazoi badela ikusten da, geure herrietako hirigintzaren ardura dutenek (bai politiko eta bai teknikariek) elkarlanari heltzeko eta, sakabanaturik egindakoak batera aztertuz gero, zer ondorio ateratzen den eta zer konpon daitekeen baloratzeko. Zer dagoen faltan eta zer soberan jakin eta gero, erabaki zehatzak hartzeko unea izango litzateke, zalantzarik gabe, eta aurrerantzean elkarlana sendotzeko.

Jose Jabier Iraeta (Zaldibia)

Esan BAI EUSKAL HERRIARI

23an

ABERTZALE ETA EZKERTZALE

Bozkatu

HERRI BATASUNA

ENA

Herriaren Alde

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:.....	721614
Donostiako Erresidentzia:	453800
Gurutze Gorria:	272222
DYA:	464622
SOS Deiak:	088
Eguraldi informazioa:.....	094
Errepideen egoera:.....	288888
Ertzantza (Beasain):	887350
Suhiltzaileak (Ordizia):	881362
Renfe (Beasain):.....	880853
Sarasola Garraioak:	880710
Pesa Garraioak:	880668
Estellesa (Donostia):	470115
Itxaropenaren tfnoa:.....	458005
HIES-SIDARI buruzko Inf.:.....	282666
Alkoholiko Anonimoak:.....	276618
Goierri Lanbide Eskola:	880062
GOIERRITARRA	889612

Errezeta



Rakel Soto
Haizpe jatetxea
Ordizia

LEGATZ ETA GANBEZ BETETAKO PIPARRAK, AMERIKAR SALTSAREKIN

Osagaiak: kilo 1/2 legatz, kilo 1 ganba, kilo 1/2 tipula, irina eta esnea.

Tipula txikitu eta gurin pis-
ka batekin sutan jarri gorritzen gorritzen. Gozatzen de-
nean, legatza nahastu eta su ez
oso handian lasai-lasai egin
dadin utzi. Gutxi gora behera
eginda dagoela ikustean, irina
nahastu eta bexamel fin bat

egingo dugu. Ondoren, zuri-
tutako ganbak gehituko diz-
kiogu eta ondoren guztiari
egosi on bat eman.

Piparrak bexamel honekin
bete eta prest edukiko dugun
amerikar saltsarekin mahai-
ratu.

Saltsa hau egiteko, tipula,
porru eta azenarioak eltze ba-
tean biguntzen jarri, ganben
azalak eta arrain salda gaine-
ratu. Ordubete egosten utzi
eta txinotik pasa.

Bota bertsoa



Joxe Ramon Elortza
Gaia: Ehiztariak
Doinua: "Guardia
Zibillak hau dio"

Hego haizea sobera
usotarako joera
zaletasunak bultzatu eta
Gaintza nahiz Beundera
zorioneko pasera
denok dakigun klasera
ehiza aitzaki gixa hartuta
pinu puntak astintzera (bir)

Jeiki goizean goizago
mendi aldera oparo
tiro hotsikan ezta faltako
hortaz ziur nago
etxeratzean akabo
kontu garbirik eztago
bat ekarrita botatakoak
larogei baino gehiago (bir)


UNTXUNDEI
Garajea



OSINALDE
Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

MUNDUATE
Erlojutegia



TISSOT

Swiss Quality Time

BANATZAILE OFIZIALA

100 urte baino gehiago
Goierriren zerbitzuan

Nagusia, 1
Tfonia: 88 12 72

ORDIZIA

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salvatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

Lana

□Ordiziar gazte langile batek edozein lan klase egingo luke: baserrian, eraikuntzan, soldaduran... 886732 telefonora dei, Alberto.

Salerosketak

□GOIERRITARRAREN kaximixetak salgai gure egoitzan (Ordiziako Dorre-etxean). Txuri-beltzak, XL, L eta M tailak aukeran, 1.000 pztan. Aldizkariaren ale atzeratuak ere oparitzen ditugu.

□GOIERRITARRAREN propaganda, ez garestiena, bai onena! Merke merke sartuko zara 3.700 txokotan (13.000 irakurletik gora). Dei 889612ra (inprenta-lanak ere egiten ditugu).

□Bi akumuladore estatiko 2.600 w-koak salgai dauz-kagu. Tfnoa.: 889651

Etxebizitzak

□Pisu bat behar da Ordizian alokatzeko. Dei 889074 tfonora.

□Bi gazte goierritarrek Iruñeko unibertsitate publikotik oso gertu dagoen pisu bat osatzeko lagun bat behar dute. Interesatuok dei Ordiziako 882619 telefonora.

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Urriak 21, Lourvier's taldearen "Rizando las Ondas" antzezlan, Loinatz tabernan 22.30etan.

Urriak 23, Kiki, Koko eta Moko pailazoen emanaldia Ezkiaga Pilotalekuan, 17.30etan.

Urriak 30, Markeliñe taldearen "Kubierño" lana, San Martin Plazan 19.00etan.

✓ Legorreta:

Urriak 29, "Mal... Mal... Malabar" ikuskizuna "Katakarak Trup" Zirko Elkar-tearen eskutik, Udal Pilotalekuan 17.00etan.

MUSIKA

✓ Beasain:

Urriak 20, blues-jazza Parkingsong's taldearen eskutik, Loinatz tabernan 22.30etan.

Urriak 22, erromeria Koldo eta Arantxa Iparragirre trikitilariekin, San Martin Plazan 23.30etan.

Urriak 23, Debako Musika Bandaren kalejira eta kontzertua San Martin Plazan, 12.30etan.

Urriak 28, dantzaldia ez-konduentzat Haizea taldearekin, San Martin Plazan 23.00etan.

Urriak 30, Txistuaren



eguna. 9.30etan Txistulari Udal Bandaren kalejira. 12.00etan Goierriko txistularien kalejira. 12.30etan, Txistu Kontzertua San Martin Plazan.

✓ Legorreta:

Urriak 29, Ainhoa Garmendiaren kantu errizitala Salbador Deunaren elizan 20.00etan.

✓ Ordizia:

Urriak 23, Sofiako (Bulgaria) haur abesbatzaren kontzertua Elizan, 20.00etan.

Urriak 30, Stockholms Vocalis Ensemble (Suedia) abesbatzaren emanaldia, Elizan, 20.00etan.

Azaroak 1, Ave (Eslovenia) Kamara Abesbatzaren kontzertua, Elizan, 20.00etan.

DANTZA

✓ Beasain:

Urriak 22, Azkoitiko Saatsa taldearen eskutik, euskal dantzak, San Martin Plazan 22.30etan.

Urriak 29, dantza garaikidea, "Con Buen Pie" taldearen "Yubihelen" ikuskizuna, San Martin Plazan 19.30etan.

✓ Legorreta:

Urriak 30, herriko soinu-jole eta dantzari gazteen emanaldia Herri pilotalekuan 13.00etan.

ZINEA

✓ Ordizia:

(Herri Antzokia)

Ostirla 21: "Superdetective en Hollywood III", 10,15etan.

Larunbata 22: "El peque se va de marcha", 7,30 eta 10,15etan.

Igandea 23: "El peque se va de marcha", 4,45etan. "Superdetective en Hollywood III" 7,30 eta 10,15etan.

Astelehena 24: "Superdetective en Hollywood III", 7,30etan.

Ostirala 28: "El cliente", 10,15etan.

Igandea 30: "El cliente", 7,30 eta 10,15etan.

Astelehena 31: "El cliente", 7,30etan.



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfnoa: 88 87 02

BEASAIN

EZ EGON BEGIRA !

Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia
MUSEO · ZUMAKARREGI · MUSEOA
Ormaiztegi · Gipuzkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa

Casa · Iriarte Erdikoa · Etxea
20.016 Ormaiztegi · Gipuzkoa
Tlf.: 943 - 88 99 00
Fax: 943 - 88 01 38

ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU

- **IBILBIDEAK**: Museoan eta Goierrin barrena.
- **LANTEGIA**: Jolasean ikasteko ariketak.
- **ZUMAKIT MALETAK**: Mailegua dohain.
I "Jazkien Baula"
I "Euskal komunikabide eta garraioak 1788/1865"
I "XIX. mendea, bi munduen arteko zubia"
- **ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA**: XIX. mendeko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- **ARGITALPENAK**: Aldizkari, foileto, katalogo, bideoak...
- **IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK...**

BISITA ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.

Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.

SARRERA DOHAINIK

✓ **Beasain:**

Urriak 22, "Valhalla" Murumendi ikastetxean, 16.30etan.

Urriak 23, "Kalabaza tri-pontzia" La Salle-San Jose ikastetxean, 16.30etan.

Urriak 29, "Isidoro" Murumendi ikastetxean, 16.30etan.

Urriak 30, "Lucky Luke: Daltondarren balada" La Salle-San Jose ikastetxean, 16.30etan.

✓ **Zegama:**

Urriak 23, "El fugitivo", 17.00etan.

Urriak 30, "En el campamento", 17.00etan.

BERTSOAK

✓ **Beasain:**

Urriak 29, Lazkao Txiki Goierriko Bertsolari gazteen Txapelketa, La Salle-San Jose ikastetxean 22.30etan.

✓ **Lazkao:**

Urriak 21, ikus Lazkaoko kronika

✓ **Legozeta:**

Urriak 30, Joxe Agirre eta Joxe Lizasorekin, bertso bazkaria Bilkoin Elkartearen 14.30etan.

ERAKUSKETAK

✓ **Beasain:**

Urriak 29tik azaroaren

18ra, Santa Clarako (Kuba) Arte eta Plastikako Eskola-ren pinturaren erakusketa.

✓ **Legozeta:**

Urriak 30, Euskal Herriko Artisautza erakusketa 10.00etatik 14.00etara.

✓ **Ordizia:**

Urriaren 28ra bitartean, Manuel Roblesen pintura erakusketa Barrena Kultur Etxean.

HITZALDIAK

✓ **Legozeta:**

Urriak 28, Eskola Porrotari buruzko hitzalida Herri Eskolan 16.00etan, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle den Pello Aierberen eskutik.

BESTELAKOAK

✓ **Ezkio-Itsaso:**

Urriak 30: Atzoko gazteen omenez, 12etan herri meza Santa Luzin, 14etan bazkaria Itsasoko Ostatuan, herriko trikitilari eta bertsolariekin. (Bazkari txartelak herriko tabernetan salgai, 65 urtez gorakoentzat dohan da. Autobusak ohi den bezala izango dira).

✓ **Idiazabal:**

Urriak 20: "Gipuzkoa 1915-1940" ikustentzunezkoa, Kepa Gonzalezen esku-

tik Kultur Etxean 20etan.

✓ **Legozeta:**

Urriak 27, Puenting eta Eskalada Herrikoia Udal Pilotalekuan 17.00etan.

Urriak 28, Patxi Ezkiaga poeta legorretarraren poesia aurkezpena Herri Zinemaren 19.00etan.

MENDI IRTEERAK:

Beasaingo mendizaleak:

Urriak 23, Urdelarrera (852 m.) mendi ibilaldia.

Urriak 30, Aitz-Txikira (791 m.) irteera.

Idiazabalgo mendizaleak:

Urriak 23, ingurugiro eguna ospatuz, zabor bilketa egingo da, 8.30etan hasita.

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 23 eta 30, betaranoen martxa.

Pausogaizto Goierriko mendizaleak:

Urriak 29, denentzat Puenteing-a Tolosan.

GOARDIAZKO BOTIKAK:

Urriak 20: Arriola; **21**: Urbizu; **22-23**: Arriola; **24**: Atorrasagasti; **25**: Azpikueta; **26**: Jauregi; **27**: Lurnaga; **28-29-30**: Cuesta; **31**: Arriola; **Azaroak 1**: Urbizu; **2**: Atorrasagasti; **3**: Azpikueta.

Ehiza garaia bete-betean

Joandako asteazkenean uso gutxi azaldu baziren ere, atzo 100dik gora ikusi ahal izan ziren; 850-900 ptan salduak. Lehen birgarroak ere agertu ziren, 50 inguru (100 ptan).

Gibelurdin eta ziza-horien garaia badihoakigu (oso gutxi agertu ziren, 2.000-2.500 ptan), eta onddoak eta nikaloak barra-barra ditugu gure artean. 100dik gora kilo onddo bildu ziren, nafarra gehiena, 1.500-2.000 ptan eta nikaloak, 700-1.000 pta bitartean.

Bertako fruituetan, aurtengo intxaurrak azaldu ziren, urte txarra izan bada ere. 500ean saldu ziren. Urrak 300-350 ptan; gaztainak 250-400 ptan; pikuak 200-300ean; baxakana gutxi batzuk, 500ean; errezil sagarra 100-275 ptan; eta mahatsa, txuria nahiz moratua, 150-250 pta bitartean. **Kanpo-koetan**, laranja berriak azpimarratu behar dira. 150-175 pta bitartean saldu ziren.

Bertako barazkiak: Indaba txuria eta gorria 800ean, eta beltza 900-1.200ean. Aza burua 80-150ptan; azalora 75-200ean; porru xorta 85-200ean.

Arrainak jaitsi egin ziren orokorrean. Bestalde, Santu Guztien egunerako zentroak ere agertu ziren. 1.500-4.000 ptan.

Ana Irastorza

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN



Tfona: 885500 ORDIZIA



Autowag, s.a.



Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfno: 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

ZUMALAKARREGI MUSEOKO BERRITASUNAK

Kurtso hasierarekin batera, Zumalakarregi Museoa bere zerbitzuak prest ditu berriro, ume zein helduentzat, taldeka zein banaka bisitatzen dutenentzat. OHOk 5.etik UBIrainoko ikasleentzako ibilbide bereziak; bisitaldi gidatuak; hezkuntz edota kultur zentroetara bidaltzen diren "Zumakit" maleta didaktikoak; liburutegi eta artxi-boa; argitalpenak, e.a. Aurtengo berrietasuna lantegi interaktiboaren moldaketa da. Hemen, bisitariak kale/baserri bi munduen arteko desberdintasunak alderatu ahal izango dituzte. Elementu nagusia baserriko sukaldea/sala burgesa eszenarioek osatzen dute. Eszenario horietako piezak kanpoan dira, nahasita. Bisitariak pieza ikusi, zer eta zertarako den erabaki eta dagokion tokian jarriko du. Jolas moduko ariketak dira, modu arin eta dibertigarrian XIX. mendeko historia irakasteko asmoz pentsatuak. Ikasi eta gozatu nahi duenak Ormaiztegi

Museora hurbil daiteke, astelehenetik larunbatera, goiz edo arratsalde. Talde bisitak antolatzeke edo informazioa eskatzeko, dei 889900 telefonora.

GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA KANPAINA jarri du martxan Osakidetzak eta Goierriko mediku-etxe eta anbulategietan. Beasaingoa urriaren 29an bukatuko da. Anbulatoriora aurrez eskatuta eta 888650-54 telefonoetara deituta, 65 urtetik gorako guztiek izango dute txertatzeko aukera. Edozein gaisotasun kroniko jasaten dutenek ere izango dute aukera Goierriin, aurrez bere medikuari kontsulta pasa ondoren.

"IL. ANTONIO MARIA LABAIEN" NARRAZIO LABURREN LEHIAKETA

Hil berria den Antonio Maria Labaien teatrogi-learen omenez Tolosako Udal Kultur Batzordeak antolatutako lehiaketa honetara aurkezteko ipuinak

jatorriz euskaraz idatziak izango dira, orijinalak eta beste ezein lehiaketatan saritu gabeak. Gaia libre den arren, formaz nahiz edukiz B.B.B/U.B.I-ko gazteentzat egokiak izan beharko dute. Lanek, gutxienez, 20 foliotako luzera izango dute. Sari bakar bat emango da 400.000 pezetakoa eta saritutako lana Alberdania argitaletxeak argitaratuko du. Abenduaren 21a baino lehenago aurkeztu beharko dira lanak Tolosako Kultur Etxean (Foruen Plaza, 1).


ESPERANTO IKAS-TARO TRINKOA

Euskal Herriko Esperanto elkarteak bost egunetako Esperanto ikastaro trinkoa antolatu du, urriaren 28tik azaroaren 1era. Gasteizko gazteentzako aterpe batean egingo da. Bi maila bereiziko dira: oinarritzko maila, hutsetik hasita eta bigarren maila, esperanto hiztunei zuzenduta. Matrikularen prezioak: loa eta pentsio osoa eta ikasketak materiala barne, 13.000 pta eta loa eta pentsioa sartu

gabe, 5.000 pta. Ikasle eta langabetuentzat beherapena izango dira. Argibide gehiago Xabier Armendariz beasaindarrak emango dizkizu. Bere helbidea, Tomas de Zumarraga, 6-3.esk. Gasteiz edo 945-141747 telefonon.

GOIERRIKO ERRETRATU ZAHARREN ESKE GOIERRITARRA

Goierriko edozein herri-tako erretratu zaharrak behar ditu GOIERRITARRAK, argitara emateko. Argazkia non eta noiz aterata dagoen, bertan agertzen direnak nortzuk diren... xehetasun guztiekin, ahal bada. Argazkiak hutsik egin gabe itzuliko dira, eta horretarako bidaltzailearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa argi eta garbi azaltzea eskertuko genuke. Mila esker! GOIERRITARRAren zuzenbidea: 124 p.k. Ordizia. Dorre-Etxean gaude, "Correos" eta Nekazal Ganbararen gainean. Tfnoa: 889612.



Ramón Jáuregui

HERRI BAT GUZTIONTZAT

PSE

EUSKADIKO EZKERRA PSOE

Euskerarena

Euskaraz bizitzeko eskubidearen babesean lokarturik bizi da jendea. Batak euskaraz bizitzeko daukan eskubidearen neurrian, besteek euskaraz ikasteko obligazioa daukate, nonbait. Baina bizitza kontraesanez eta ironiaz beteta dago, baita euskara-kontuan ere: lagunari ez diogu inoiz exijitzen euskaraz ikas dezan; beti kontrarioari. Eta zertarako exijitu behar diogu be- raiekin sekula hitzik egiteko asmorik ez dugun parrokiaroei euskaraz ikas dezaten? Pixka bat pentsatuko bagenu!

Sekula santan berarekin hitzegiteko asmorik ez dudan horrek, nahi izanik ere, ez ditu santa sekulan zapalduko nire eskubideak. Beraz, nire obliga- zioa da nire lagunei exijitzea, eta ez etsaiei. Kontrarioaren problema erraz soluzionatzen da; baita dendari, medi- ku eta gaineratiko profesionalena ere. "Ogi bat" esan eta "aqui lo tiene" erantzuten dizutela, bertan utzi eta os- pa egin. Eta abokatu edo medikuarekin berdin, gibela bertan ustelduko bazai- gu ere! Espabila daitezela! Zer ordu den ingelesez galdetzen badidate, erantzun, harro-harro; baina kastila- noz galdetzen didatela?, ezta kasorik ere!

Euskaraz primeran dakitenak ere badaude sekula santan elkarrekin mintzatuko ez direnak. Hizkuntza har- tan baino beste honetan mintzatzea inportanteagoa izango da, baina min- tzatzen ez bagara, denak daude sobera.

 **Rufino Iraola**

Hauteskunde kanpaina jarraitzen al duzu?



Joxe Mari Albisu
28 urte, lazkaotarra
langilea

Piska bat jarraitzen dut. Baina nire ustez, argi dago ez duela ezertarako balio. Kanpainan asko agintzen dute, baina az- ken finean gero nahi du- tena egiten dute. Engainu bat da.



Aloña Telleria
21 urte, lazkaotarra
ikaslea

Ez dut batere jarrai- tzen. Nazkatuta nago, telebistan besterik ez dago. Kanpaina pasatze- ko gogoia daukat. Gai- nera, kanpainak ez du ezertarako balio, bakoit- zak bere ideiak aurretik bait dauzka.



Inazio Agirre
30 urte, hernaniarra
Abaltzisketako apaiza

Aspertuta nago kan- painarekin. Kanpaina bukatu ondoren, esanda- koa ez dute betetzen. Hainbeste diru gastatu, eta ezertarako. Jendeak aurretik daki zer egin behar duen.

Bitxikeriak

Zeraingo kartzela: 1705.ean Zeraingo Kontzejuak udaletxea eraikitzea eraba- ki zuen. Olabide baserriari terreno batzuk erosi ondoren, eraikinaren diseinua Esteban Larraza Segurako zurgin maisuak burutu zuen; zurgintza lanak Lukas Agirreburualderi eta hargintzakoak Martin Garrori eman zitzaizkien. Obra kontratuaren baldintzetan zaltegiak, kartzela, alondiga, labea, e.a. aurrikusten ziren. 1708.ean ez baino 1711.ean bukatu ziren lanak. Herriz herri zihoazenentzat izango zen ziurrenik kartzela. Zeraingoa Gipuzkoan ezagutzen den ziega bakarra da, berritua dago eta bertako irudiek garai hartako egoera agertzen dute.



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak esker- tuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik osti- ralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZa

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI



Jakoba Errekondo
(Lorazaintza teknikaria eta paisajista)

Zerain proiektua, batik bat kultur proiektu bat da, baina kultura bere zentzu zabalenean hartuta. Bere oinarria Zerainek duen kultur ondarea da eta honek 3 zutabe ditu: Gizartea, Sinbolikoak eta Tekniko-ekonomiko-artistikoak. Zerainen, komunitate zentzu kulturalari eutsi eta indartzeak, barne darama azpiegitura ekonomikoak sendotzea, hau da, baserria sendotzea.

Gaur arte, nekazaritzaren arloan gauzatu diren ekimenak hauek dira: bilera bana egin da baserritik soilik bizi diren herriarrek eta baserritar mistoekin, bertan proiektua aurkeztuz, iritziak bilduz, e.a.; Mendi-nekazaritza ikerketa zentruko bekario baten bidez, Zeraingo nekazaritzaren azterketa sakon bat egin da: baserri fitxategia, bakoitzaren bitarteko agronomikoak (lur-sailak eta hauen ezaugarriak, azpiegitura teknikoak, e.a.), eta giza-egitura (familia, ondorengoak, asmo eta nahiak, e.a.) aztertu; Labeldun Baserriko Oilaskoaren hiltgetitxoa herrian kokatzea.

Arlo honetan egun lantzen ari dena: nekazarien ikuspegia, asmo eta nahiak aztertu eta proiektuan txertatu; baserri bakoitza unitate gisa aztertu, errentagarritasunak neurtu, ustiraketa eta produktu berriak proposatu, etekin-bideak aniztu (bide hau, uda honetantxe burutu den inkesta- ikerketaren ondoren tajutuko da); kalitatea zaindu: sortzen den produktu edo zerbitzua, edozein izanik, beti kalitate parametro gorenetan egon behar da; Merkaturak kontutan hartzea garrantzitsua

Zerain Proiektua eta Nekazaritza

da (horra hor kontsumitzaile elkarteen premia), baina baita herri-komunitatearen kulturari eustea ere.

Jorratzeko proposatzen diren bideak: * Ohizko produktuei eutsi eta bertako barietateak bultzatu, inguruaren baldintzetara egokituak bait daude (lurra, klima, e.a.). Zerainen aipagarriak dira indaba, errezil-sagarrak, intxaurrea eta urra, sagardoa, behi eta ardi-esnea, gaztaia, haragi- aziendak eta egurra. * Merkatuak eskatzen dituen produktu berrietatik, Zerainen bertan jarritako baldintzen arabera ekoizteko egokiak direnak aukeratu, eta desagokitzat jotzen direnen aurrean, nahiz eta merkatuak sutsuen eskatzen dituenak izan, erresistentzia bideak landu. Hau komunitate-kulturaren zentzutik bakarrik hel daiteke. * Betidanik hemengo produktuei kalitate berezi bat eranstean jakin du bertako baserritarrak. Kalitate hau galdu ez den produktueta mantendu eta besteetan ekoizpen sistema zaharretara (bertako barietateak, garaian garaiak, ongarri naturalak, kimikoen erabilera alde batera uztea, e.a.) itzultzea bueltatzea.

Transformazioa: Produktuak ekoiztea ez da nahikoa. Gero landu edo eraldatu egin behar dira, merkatuak eskatzen dituen

eran eskuratu ahal daitezen (kontserbatan, ontzi berezietan soilik, produktu ezberdinak nahasirik, e.a.). Transformazioa produktu bakoitzarentzat, eta legeko osasun araudi guztiak beteaz gauzatzea ekonomikoki mina da, eta baserriero baina are zailagoa. Arazo hau taldekako irtenbideak proposatuz landu behar direlakoan gaude.

Komertzializazioa bideratu: Goierriko Mendi-Nekazaritza Elkartea eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin herriko produktuak sustatzeko marka komertzial bat sortzeko asmoa dago. Honek onura bikoitza luke: batetik, baserri produktuak egoki aurkeztu, kalitateko produktua zorrotz identifikatu eta salmenta erreztu; bestetik kalitatezko produktu horren salmentaren etekinik gehienak zuzen-zuzenean baserritarren-tzako lirateke.

Zeraingo nekazal produktuak bereiziko dituen marka komertzial bat eratzen ari da, bera erabili nahi duten baserritarren eskura jartzearen. Marka hau herrian ekoizten den edozein produktuk eraman ahal izango luke. Komertzializazioa, herri erdian dagoen bisitarientzako informazio gunean bertan dagoen dendatik moldatuko da, bai salmenta zuzenean, baita zabalkundean ere, bertatik igarotzen baita Zeraina inguratzen den guziaz. Beraz, Zeraina hurbiltzen den natura, kultura edo ondarearen zalea den bisitariak, bertako baserrietan ekoizten diren produktuak ezaugu ahal izango ditu eta lehen lehenik eskeiniko zaizkio.

“Zerain Proiektuan, ekonomia (baserria) kulturaren menpe (komunitatearen bizi-iraupena) dago nahi eta nahiez”

MANDIO taberna

Zeraingo produktu onenak: sagarrak, babarrunak, gaztak...

Herriko Plaza
☎ 80 17 05

ZERAIN



GOITGI
OKINDEGI
Ogigintzan onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737

Zeraingo ganbarak mandio berria

Zeraingo Udalak herria promozionatzeko beste urrats garrantzitsu bat eman du: Mandioa. Zeraingo Proiektuaren barruan esanguratsuak izango diren lau atal izango ditu Herriko Plazan kokatua dagoen Mandioak.

Batetik, Informazio Zentrua, bertan Zeraina inguratzen den edonork herrian dauden oinezko eta mendi-txirrinda ibilbide, ikusgai eta gidaturiko ikustaldi aukera eta posibilitateen berri eskura izango du. Besteak beste, San Blas ermita, Larraondo zerrategia, Herri Museoa eta Kartzela.

Bestetik, herriko produktuen denda eta herritarrentzako denda. Bertarazten den guztiak Zeraingo baserrietan ekoizten diren produktuak (indaba, gazta, intxaurra, artisautza, eztia, fruta, sagardoa, etab.) eskuratzeko aukera izango du. Era berean, proiektuaren barne herritarren bizitza kalitatea sendotzea ahaztu ezin denez, egun zeraindarrok ez duten denda zerbitzua zabaldu da. Zeraingo Udaleko Antton Alustizaren esanetan, "momentu honetan, Zeraingo gazta eta frutak, Segurako eztia eta Zegamako zeramika daude salgai. Izugarritzko erronka da hauek saltzea, baina honekin bertako produzioa indartu nahi dugu".

Eta azkenik, taberna. Herriko Pla-



Bedeinkazio guztiekin ireki berri da Zeraingo Mandioa

zari batetik bizitasuna eman eta bestetik informazio zentrua osatu eta bisitariak eskatzen duten zerbitzua eskaini nahi da. "Taberna negozioa da. Honekin Zerain enpresa zerbitzua martxan jarri da".

Urriaren 7an inaguratu zen. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Kultura diputatuak, Goieki, Goimen eta Zeraingo Udal eta Kultur elkarteetako ordezkariak izan ziren bertan. Eusko

Jaurlaritzako ordezkarien eskerrak eman zien zeraindarrek, "horrelako proiektu bat aurrera eramateko duten gogoagatik".

Bedeinkapenik ere ez zen falta izan: "Bedeinka itzazu Jauna, eraikuntza hau egin dutenak, zerbitzu lanean ari-tuko direnak, Zeraingo adiskide, langile eta bisitari guztiak".

 Loinaz Agirre



Informazio eta harrera bulegoa: (943) 80 15 05 - 80 17 05 - 80 17 24

Zerain, Gipuzkoako mendebaldean bere natura eta paisaiaren xarmari eutsi dion txoko berezi bat da. Zeraingo herria, bertako kultura eta bizimoduak sortutako ondare arkitektonikoa, etnografikoa etab. berreskuratu eta eusteko izugarritzko ahalegina egiten ari da.

● **IKUSGAIK:** Herri Museoa, Kartzela, Zerrategia, Meategiak, Galtzara, etab.

● **35 km. IBILBIDE,** ondarea ikusiaz, oinez eta txirrindaz egiteko.

● **Bertako jakiak** eskuragai (indaba, gazta, sagarra, intxaurra, sagardoa, etab.)

● **Otorduetako aukera:** Ostatua, Mandioa eta Sagardotegia.

● **Taldeka eta bakarkako ikustaldiak,** gida iaio baten laguntzarekin.

Ba al dakizu...?

23KO HAUTESKUNDE autonomikoetarako alderdi desberdinetako Goierriko hautagaiak hauetxek ditugu: EAJtik, Amaia Arrese beasaindarra 9. postuan doa; Juanbi Erauskin ordiziarra 12.ean; Iñaki Estensoro lazkaotarra 18.ean; Jon Jauregi eta Markel Olano beasaindarrak 20. eta 24.ean doaz, hurrenez hurren. EAtik Josi Insausti beasaindarra 21. postuan eta PSE- EEtik Beasaingo Jose Luis Elorza 15.ean aurkezten zaigu.

ORDIZIAKO AZOKA aurrera atera eta biharko egunean Goierriko "motorra" izan dadin plangintza-ren bila dabilta. Orain dela gutxi "Bizilan" eta bi neska gazte zaldibitarrek ikerketa bat burutu zuten feria honi buruz, eta, hori abiapuntutzat hartuta, Udalak IBK (International Bask Consulting) enpresarekin asteroko azokari eragiteko eta berau dinamizatzeko hitzarmena sinatzea erabaki du. Plangintzak 2 milioiko kostua izango du eta urte bukaerarako egongo da prest, datorren urtean martxan jartzeko. Ale atzeratuei segmentxo bat egitea nahikoa da gauza zertan den ikusteko. Aldaketa batzuk izango omen dira, baina egun-aldaketa ez da egokia ikusten. Asteazkenez izango da gero ere.

3. MUNDURAKO DIRU-LAGUNTZAK emateko garaian gaude beti ere. Ordiziako Iparra-Hegoa programenzako laguntzak aidean daude oraindik ere, azken plenoan gaia mahaigainean geratu baitzen. 6 milioi banatzeko asmoa dago Ordizian (%10 bertako sentsibilizazio kanpainetarako) eta 15 egitasmo aurkeztu badira ere,

bederatziri laguntza ematea aurrikusten da. Beasainen, bi ONG izan dira aurrekontu osoa eraman dutenak: Garapena (700.000 pzta.) eta Mugen Gaienetik (900.000 pzta.)



PARTZONERIAN

EHIZTARI UGARI dabil urte-saso honetan, uso-pasaren usaiean. 100 bat ehiz-postu biltzen dute Gipuzkoa eta Araba arteko partzoneriko 3.200 hektareek. 50en bat postu debalde atera zitzaizkien Segurako zozketan hala tokatu zitzaieni eta gainontzekoengatik ordaindutakoekin 11 milioitik gora ateratu ditu Partzuergoak. Denboraldi honetan zelatan egon beharra eta lana gehitu zaie duela 12 urte ezker bertako goardak diren Zeraingo Jose Manuel Oria eta Zegamako Inazio Urbizuri. Geroztar azaro gutxiago dago garai honetan, baina isileko-ehiztari batzuk ere sar-

tzen dira noizean behin, diotenez. Benetako ehiztariak badaki nola jokatu, baina batzutan eskopetero zenbait ere "ehizatu" dute. Iaz jarri zuten zigorrik haundiena 160.000 pezetakoa izan zen babestutako hegazti bat hiltzeagatik.



KONTSUMITZAILEAREN INFORMAZIO BULEGO

ibiltariaren ateak ireki dira berriro Beasain, Ordizia eta Lazkaon. Beatriz Iñurrategi legazpiarra izango da hiruren arduraduna 4 orduz egunero, 9etatik 13etara. Ordizian Jakes etxean astelehen eta asteazkenetan; Beasainen Martina Maiz kaleko 2.ean astearte eta ostegunetan eta Lazkaon ostiraletan. Arduradun berriak esan duenez, geroztar erreklamazio gutxiago, baina kontsulta gehiago jasotzen dira egun, jendea informatuago baitago.

inlingua
hizkuntzak

INGELESA, ALEMANIERA,
FRANTSESA ETA ARABIERA
Matrikula zabalik
Jatorrizko irakasleak
Maila guztiak

J.M. Iturrioz, 11-1. ☎ 16 05 72
BEASAIN
Elkano k., 8-1. ☎ 88 11 37
ORDIZIA
Iparragirre, 8-1. ☎ 72 22 23
ZUMARRAGA

LAZKAO-TXIKI Ir buruzko liburua idatzi du Manuel Lasarte bertsolariak eta Auspoak kaleratu dio. "Lazkao-Txiki gogoan" izeneko liburua Lasartek bere lagun minaren omenez egin du "aitorpena eta azken agurra". Eguneroko bizitzan Lazkaoemendikoak zer nolako jokaerak zituen ez badaki ere, bai ordea bertso kontuan: "Neretzat ez da lan erraza baina aleginduko naiz Lazkao-Txikiren albisteak ematen eta bere nortasuna agertzen, merezi duen mallan eta nik ikusi dedan modura", dio liburuan. Auspoak argitaratutako ale honetan prosak eta bertsoak aurki daitezke, orduko bertsolaritzaren testigantza izan daiteke.



GOIERRITARRAK

ETB-N: Andana bat dira euskal komunikabideetan ari diren goierritarrak. Esaterako ETBren aurpegi ezagunenen artean daude Itziar Iraola eta Kiko Jauregi beasaindarrak (Super Bat-en), Andoni Aizpurua gabiriarrak (eguraldi iragarpenak eta Euskadi Zuzenean), Maite Amundarain itsasondarra, Beasaingo Aintzane Bolinaga eta Iñaki Olano informatiboetan, Jon Elortza, Xabier De La Fuente eta Andoni Arratibel beasaindarrak, Fermin Aramendi

ataundarra, Ordiziako Jon Ander Gorospe eta Igor Sarriegi lazkaotarra kirolelan... "22ra" lehiaketako aurkezle den Joxe Felipe Auzmendiri, berriz, "Baietz barrez lehertu" saio berria aurkezteko eskeini diote ETBkoek.

SEGURAN GIDATZAI-LE TURISTIKO

baten beharra da-goela aipatu berri du "DV"ko kronista den Huerta Iriartek. Geroztik eta gehiago bide dira Segurara inguratzen direnak bertako ondare historiko artistikoa eza-gutxera eta penagarria da eliza ezin ikusi ahal izana kanpotarrek, itxita ego-ten baita askotan. Parrokoak eta Telle-ria senar-emazteek hainbat esplikazio ematen dizkiete, ahal dutenean, turistei, baina jakituna litzatekeen laguntzaile-ren baten falta somatzen da eginkizun horretarako.

GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEA

da eskuetan izaten duzun GOIERRITARRA hama-bostekariaren argita-ratzailea, jakingo du-zunez. Ale honetatik bertatik Kultur El-karteak bultzatzeko kanpaina bati ekiten diogu, Goierriko kul-tur ondarea denon artean bildu eta gora-tzeko asmoz. Idea fal-tarik ez eta eginkizun ugari ditugu aurriku-sirik: Goierri eta bere

herrien gehigarri bereziak, libu-ruak argitaratu udalekin, kultur elkarte eta jendeekin bat eginik, ekintzak antolatu, e.a. Asmo ho-nekin bat baldin bazatoz eta bo-rondate hori baduzu, "Goierri-tarrak" K.E.-a indarberritzea nahiko bazenu, bete ezazu lehe-nik ohar honen azpian datorren bazkide txartela eta bidali. Gure berri izango duzu laister.

ITSASKIAK	MOETA
KORTA	GUZTIAK
	ITSASKIAK
	GURE
Tel. 88 71 86 20217 GABIRIA	ARRAINDEGIKOAK

GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO BAZKIDE IZAN NAHI DUT NIK ERE

IZEN-ABIZENAK
 HELBIDEA
 HERRIA.....TELEFONOA.....
 BANKETXEA.....BULEGOA
 KONTU KORRONTE ZENB.
 (1.500 PEZETAKO KUOTA/URTEKO)
 BIDALI "GOIERRITARRAK K.E." 124. P.K. ORDIZIA

	LAZKAO GARAJEA
	RENAULT
	Senpere Industrialdea
	882442-888901
AGENTZIA	Faxa: 888901 LAZKAO

2-4-1EKO ZIGORRA DUTE ETA 5-6 HILABETEKO GARTZELALDIA GAINEAN


Intsumisioan ados Mintegi eta Albitos

Goierrin 100 bat intsumiso eta 500 objetore inguru daude. Zenbait objetoreei Ordezko Prestazio Sozialeko plazak eskaintzen hasi zaizkie, eta horietako dexente intsumitu egingo omen dira. Soldadutzari intsumisioa agertu dioten Gotzon Mintegi ordiziarra eta Juan Karlos Albitos beasaindarra 3. graduari daude, egunez kartzelatik ateratzen dira eta gauean lotara itzultzen dira. Asteburuak libre dituzte.

Guzti hau bukatu ondo eta guztiz libre izan nahi lukete. "Kartzelan ez digute kasu gehiegirik egiten, alde batera uzten gaituzte. Asistenteei, funtzionarioei... gutaz pasatu egiten dute. Martuteneko ertzainak saiatzen dira piska bat hitza ematen: 'gabon' (!), nolabait 'adiskide' agertzen... Baina azken finean eurek eramaten gaituzte hara", diote bi goierritarrek.

GOIERRITARRA.- Zein da intsumisio- mugimenduaren koiuntura?

Mintegi.- Intsumisio mugimendua Euskal Herri mailan dago zentratuta. Euskal Herrikan kanpo objektua bada baina intsumisio gutxi. Eredu bezala Nafarroa hartu izan da. Probintzia guztietara estrapolatu nahi izan dute hori mugimendutik, eta gauzak ez dira horrela ateratu. Kontua da, mugimendua estankatuta gelditu dela, impasse bat bizi dugula.



"Merezi al du zuen semea militarren esku utzi eta agian ez itzultzea?"



G.- Zer dela eta?

M.- Epaiketen kontua Nafarroan baino askoz ere beranduago hasi zen hemen. Hemen hasi zenerako, Nafarroan 100 bat intsumiso preso zeuden. Orduan, Nafarroaren parekoa izateko estrategia prestatu zen hemen, baina antzik ere ez du. Mugimendua kartzelari begira egon da, jende asko zegoen sartzeko prest eta planteen kontu hori saldu zitekeen. Baina epaileak konturatu dira Nafarroako estrategia ez dela egokiena eta beste alde batetik jo dute. Botere Judizialaren estrategia oso zuhurra izan da, ez digute aitzakirik eman. Mugimendua tratatuta gelditu da eta ez du jakin gainontzeko frentek betetzen. Intsumiso eguna egin da eta horrelako ekitaldietarako jendea mugitzen da. Jarraitzaileak badago, baina modagoan egon da intsumisioa. Orainxe gu


zeregin ezean gaude, ezin dezakegu ezer ere aurrera atera.

G.- Konturatu egin dira arriskutsua dela intsumisioari indarra ematea?

M.- Hori da, suari gasolina botatzea bezala. Eta orduan, guztia gelditu arazi dute. Epaia ere hiru edo lau hilabeteetara izaten da. Baina fiskalak errekurritu egiten du eta historia asko luzatzen da. Errekurtso batzuk ere ateratu dira. Baina urte bete pasarekin ateratzen dira eta orduan epaileak auzi hori Madrilera bidaltzen du absoluzioa eskatuz. Guzti horrek, tramiteak izugarri luzatzen ditu eta lege berria ateratu arte luzatzen, itxoiten ari dira. Euren jokua hori da.

G.- Gizartea jabetzen al da zuen lanaz?

Albitos.- Intsumisiook ez gara solidoak, libratu egin nahi dugula, kon-



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

tzientzia eragozpena izan beharrean, konbenientziatzko eragozpena dela gurea...

G.- Herri xeheak nola ikusten du intsumisioa?

A.- Denek apoiatu naute beti, familiak, lagunak, bizilagunek... Zurrumurru horrekin jendea erreazionatzen hasi da. Jendea konturatu da intsumisioa "eskakeatzeko" zerbait ez, eta soldaduskaren arazoari aurre egiteko mugimendua dela. Oso gutxitan egin didate aurka.

G.- Indarra ematen al du guzti horrek? Animoz nola zaudete?

A.- Harrapatuta sentitzen zara, lana daukazu, lagunak, e.a, baina kartzelara joan behar zara gauero...

G.- Zenbat denborarako zigorra duzue?

M. eta A.- 2-4-1. Bi urte, lau hilabete eta egun bat. Urte erdia ere ez daramagu oraindik.

G.- Jendea ohartarazteko, zer egin?

M.- Jendearengana gehiago ailegatu, jende gehiago kontzientziatu, mobida handiak egin... beste marketing bat saldu eta ez kartzela kontua bakarrik. Dena den, herrietako taldeetan lan asko egin da kaptazio mailan. Hau da, gazteengana iritsi eta horiek intsumiso edo objetore bihurtu. Baina ez da iritsi gazte horien gurasoengana eta partaide garrantzitsuak dira berauek ere. Azken

finean gurasoek eragin handia daukate beren semeengan. Badakite kartzelan egon beharko direla semeak... gu ere horretan nolabait eragozpen izan gara, gu ere kartzelan gaude, konparatzeko eredu bat dago. Nire ustez, kontzientziazioa izan behar litzateke, gazteak hartu, kontzientziatu, etxera joan eta esan. Gurasoei esan, zuek zuen semeen soldaduska ordaindu egiten duzue, militarrek ordaindu egiten dituzue. Merezi al du diru hori ordaintzea? Merezi du zure semea militarren esku uztea eta agian ez itzultzea? Hor badago, gutxi landu den alor bat.

"Estatuarentzat eragozpen haundiena objezioa da"

G.- Militarrek lehenagoko lepotik burua? Beldurra hartu al dizue ala zuek zarete euren beldur?

A.- Aurpegia asko garbitu dute baina egia esan ez dira asko aldatu. Zerbait aldatu badute, presioagatik izan da. Marketina. Orain agindu duten soldaduska marabilosoa lehen ere agindu zuten, ez bete orde. Nahi dutena aginduko dute, baina bere horretantxe, betikoan dago soldadutza.

G.- Intsumisioak gero eta indar

gehiago du, ezta?

A eta M.- Bai, gero eta gehiago gara. Orain objetoreei deitzen hasi dira. Aurten 70.000 plaza habilitatu behar dira objeziorako. 140.000 lagun daude Estatuan objeziorako eta 70.000 plaza habilitatu behar dituzte; datorren urterako plaza gehiago prestatzeko asmoa dago. Azken batean, beraientzat eragozpenik handiena objezioa da, dudarik gabe. Intsumisoak baino askoz ere gehiago dira eta gainera botereak, nolabait, onartuta dauka objetoreei plazak jarri beharra. Orduan, asko direnez eta denentzako plazarik ez daukatenez, ezin dute objetore batzuk amnistiari eta besteak ez. Edo denak amnistiartzen dituzte, edo denei plaza ematen die. Kontua da, 140.000 horietatik 50.000 aurtengo sei hilabetetan apuntatu direla. Normalean, bigarren seihilabetealdian lehenengoan baino jende gehiago apuntatzen da. Aurten 120.000 apuntatuko direla jotzen da, beraz. Kontutan hartzen bada, aurten 70.000 plaza habilitatzen direla, aurtengo 120.000 lagunak eta aurretik airean zeuden beste 70.000 lagun pilatuko dira. Datorren urtean 100.000 bat plaza jarri nahi dituzte... baina denak pilatuko zaizkie. Beraz, objezioa intsumisioa baino traba handiagoa da beraientzat, hemen dextente kontrolatu dutelako intsumisioa.

 Jon Arano & Loinaz Agirre

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



TAPIZ ETA GAINETADURA
TAILERRA

B i O K, c. B.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

Goierriko ermittak (eta III)

Lierniko Ama

Hutsa da Lierniaz aurkitu dezakeguna. Eskeintzera goazena, azken ehun urte hauetara gutxiasko mugatzen den joan-etorria da; eta ahoz-aho jasoa gehiena.

Ermitta eta irudia

Gaurko ermita 1877koa da; urte honetan birregituratua eta handitua. Ama Mariaren irudia "Ama Birjiña Letxerakoa" izenez ere ezaguna noizbait, zurezkoa da, gotiko arokoa; zutik dago eta Jesus Haurra bi eskutan jasotzen du. Amabirjinaren irudiak mantuz janzteko ohiturak izan zuen eraginik hemen ere, eta irudia oso "ukitua" izan zen, jantziak jarri ahal izateko. Badu Lierniak beste irudi baliotsu bat, egun Donostian Elizbarrutiak duen Museoan dago. San Markos eta Aingeru Goardaren kuadro ederrak ere baditu, ezker-eskubi dituen aldareen buruan.

Serora eta santera

Amabirjinaren etxea zaintzeko, serora bat dago, ermitaren ondoan bere bizilekua duena; elizarena da etxetxea. Serora Mutiloakoa eta ezkongabea behar duela izan diotenak badira. Oraingoak (Maria Telleria) 30 urtetik gora daramatza eginkizun honetan, eta beronen izebak aurretik 66 urte egin zituen (ikus Maria eta Alejo Telleriari 9. GOIERRITARRAN eginiko elkarrizketa). Liernia zaleek egin ohi dute aha-lerin serorak bizibiderik izan dezan; hainbat opari egin izan zaizkio: oilaskoak eta esnea, bereziki; eta arraultzak, e.a. Eta gainera Santerak edo Santutegiko Eskekoak han-hemen bildutako laguntzak. Santera izenez ezagutzen



dugu, kutxa gisako batean Amabirjinaren irudia etxex etxe (gaisoetara bereziki) eramaten dituzten emakumeak.

Jaierak

Isastik aipatzen du Lierniko Andre Mariaren Baseliza 1625eko idatzietan. Goierrik izan dio berebiziko jaiera. Urtean zehar noiznahi inguratu izan da, eta inguratzen da Goieritik eta Gipuzkoa osotik jendea. Lierniara hurbiltzeko 4 bide izan zituzten oraintsu arte erromesek: Mutiloa eta Zeraingoa, Segura eta Zegamakoa, Idiazabalgoa eta urrutixeagotik Ormaiztegin trena utzirik. Orain gehienak kotxex igotzen dira: Mutiloatik 1,5 km., eta Ormaiztegitik 3 km. Oinezko erromesek, jaiera egin ondoren, inguruko zelaietan eserita sendi edo lagunartean egiten zuten otordua. Ikuskizun hori galdu da jada. Ormaiztegiko herriak bakarrik du gaur egun bere egun izendatua (uztailaren 2. igandea) urteroko erromesaldia egiteko. Irailaren 8a da festa nagusia; egun berez eta hurrengo igandez ospatzen da; Aingeru Goardako egunean ere, martxoaren 1. egunez; maiatzaren azken jaia,

Goierriko Eskaintza eguna bezala joa izan da; ezkontza ugari ospatzen da eta beste zenbait eratako ospakizunak egiteko ere biltzen dira taldeak.

Errogatibak, konjuroak...

Errogatibak, San Markosetan eta Azentziokoan. Lehorte gogorretan, Lierniko Ama Mutiloako Parrokira jeitsi izan dute. Oso gogoan du jendeak, 1920ean bederatziurren go-goangarria egin omen zen: eguneroko meza nagusira jendetzak bildu omen ziren handik eta hemendik. Konjuroak, apaizak bi monagilo laguntzaile hartuta, soro eta beste bedainkatzen, artoa ernetzeko garaian egiten ziren.

Eskaintzak eta eskariak:

Olio (gaur kandelak): eskutako gaitzak kentzeko, olio horrekin igurtzi; hizketarako atzera zetozten haurren mingaina olio z ukitu. Ur bedeinkatua, etxe, abere eta soroentzako. Ernaltasuna (gizaki eta abereetan ere) eta emankortasuna eskatu izan zaio eta horretarako eskaintzak egin: oilaskoa eta esnea (gero seroraren mantenurako izango zirenak); gaur egun ere gutxi batzuk oraindio gordetzen dute ohitura hau. Txerrikumeak ere inoiz. Aberearen salbelaren jirabirako neurriko argizariak.

Bada zenbait kontakizun bitxi eta harigarririk ere. Oparian hartutako apaingarriak baditu Amabirjinak: mantuak, domiñak, e.a.

J.M.A. (Jose Inazio Zugasti, Luis Murugarren eta Jose Mari Leteren testuetaz baliatuz)

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

**JAUREGI
TOLDOAK s/n**

Tfonoak: 880243 - 880133
BEASAIN

**foto
alzuri**

ARGAZKI DENDA

Argazkien errebelatua ordu betean
Tfona eta Faxe: 88 04 78
Nafarroa Etorbidea, 1. BEASAIN

BEASAINGO FORD MUJIKA AUTOMOBIL ORDEZKARITZAKO NAGUSIA:

“Abiadura handiko mentalitatea aldatu beharko da hemen”

Luis Mujika Txapartegi itsasondoa-rrak 42 urte ditu eta ez zen atzo goizean autoen munduan sartu. Gaztetan hasi zen mekaniko bezala Legoretako tailerrean anaiekin: “Orduan 4 auto marka besterik ez zen” eta erabilitakoe-kin ibili ziren. Ordizia-Beasain artean autoak saltzen hasi zen ondoren Ford zerbitzuan. Oso gustora zegoen munduan hain ezaguna den etxe horrekin eta bere ordezkari sartu ziren Beasainen: “zulo handia zen, baina leporaino sartu ginen”.

Gorabehera handiko merkatua

Kontzesionario honen esparrua Izagatik Billabonarainokoa da eta bi sukurtsal edo zerbitzu ditu, Tolosa eta Irurakoak. Auto-errekantioekin lan asko egiten dute Goierriko tailerren sarea hornituz. Mila milioi inguru fakturatuko dituzte autosalmenta, auto-errekantio eta tailerrarekin. Itsasondoraren ustez, fakturazioaren eta bertan geratzen diren etekinen artean alderik badago, “horren gehiengoa zergek eta fabrikantek eramaten baitute. Gertatu ohi zaigu, ‘galtzen’ eta guzti ari- tzea, fakturazio haundia euki arren”.

Ia familiarra zen negozioak hazkunde galanta izan zuen 80 urteetan, onenetan (87tik 90era) 17 langile izatera iritsiz, “autoen kanpoa ere izugarri hazi zenez, gainera Goierri ondo zebilen ekonomiko- koki”. 450ren bat auto saltzen ziren urtero. Geroztik, 90 hamarkadako krisi-urteek salmenten dezenteko jeitsiera ekarri dute.

Gobernuak orain dela 6 hilabete mar- txan jarritako “Renove” planarekin (kotxe berria erosiz gero 10 urtez goikoagatik 100.000 pzta. ematea) merkatua erreakti- batu egin da. Gipuzkoan bakarrik, 2.791 auto aldatu dira. Hala ere inor ez da iritsi aurreko urteen mailako salmentara. Orain berriz, “Renove”ren 2. atala jarri du mar- txan estatuak: matrikularen zergarekin zer ikusia duena eta 80.000 pzta. emango diz- kiona 7 urtez goikoa txatarrara botata be- rria erostera doanari. Mujikak ez du uste 7 urteko autoa (berria oraindik), aldatzea konparagarria denik, eta ez omen da “pao- txa” izango.

Jendearen joerak

Aspalditxo honetan “Escort” tamaina-



Luis Mujika: “Aurrerapen on asko ekarriko digu teknologiak”

tipoko autoak erosteko joera dago, “nor- malean hori jotzen da onentsuenatzat, oso ondo ekipaturik baitatoz, lana duten gaz- teentzat egokiak dira eta horretara jarrita gaude”. Miloi t’erdi-bi milioien bueltan daude salgai. Gero, “Fiesta” delakoa da salduenetakoa. “Aurrenetik gazteena zen azken honekiko joera, baina hori aldatuz doa: edadeko jendeak erosten du, gazteak haundiagoetara jotzen du orain”.

Gaurko erosleak segurtasunari begira- tzen dio gehienbat eta Ford-ek baliabide asko jarri ditu horren mesedetan, akabatu oso onekin datoz marka gehienak: air- bag-a litzateke abantaila ikusgarrietan ezagunena.

Segurtasunaren garrantzia

Segurtasunak obligaziozkoa dela diru- di. Istripuek gastu ugari eragiten dituzte izan ere eta aseguruak, kotxezaleek, eta zeinek ez du eskertzen halako esfortzuak egin izana? “Lehenago, kolpea hartu ez- kero lepoa hausten zenuen erraz asko. Oraingo eserleku eta burukoekin zailagoa da, kolpe haundiagoa hartu behar da ho- rretarako”. Errepide hobeak dauzkagula, auto hobeak egiten dituztela eta Ford-ek segurtasunaren aldetik merkatuari egun- doko mesedea egiten dion komentzimen- du osoa du Mujikak.

Adibidez, “ABS”a da beste gehigarri bat Ford gama gehienek badaramatena: gurpilak blokatzen dituen frenua da, autoa ez da joaten arrastaran, kolpea ebitatzen duela aldi berean. “Direkzio asistitua” de- lakoa ere auto gehienek dute egun. Tek- nologian asko aurreratu eta bere etxea ai-



tzindaria izan delakoan dago Luis: “He- mendik 5-10 urteetara gauza polit, berri eta on asko etorriko zaizkigu”.

Teknologia aurreraka

Ford-ek eginiko berealdiko inbertsioen beste fruituetako bat da “Mondeo” ere- duari kazetariak eman dioten “94 urteko Europako autoa”ren saria. Europa eta Ameriketako prototipoak diferenteak zi- ren orain arte. Auto berdinak, gezurra di- rudien arren, abiadura motelagokoak egi- ten dira EEBBetan (110 km./orduko). Pe- likuletakoarekin zer ikusirik ez du. “Men- talidade hori aldatu beharra daukagu; hemen 140 zalditik gorakoak behar ditu- gula ematen du. EEBBetan jendea man- tsoago ibiltzen da: 20 km. egiteko 15-20 minutu behar direla? Bada, lasai. Hemen 5 minutuetan egin nahi izaten dugu beti eta, kotxeek indarra sobran dutenez, era- bili egiten da”. Europearron mentalitatea eta motorren indarra aldatuko omen da, behar bada.

Bienbitartean, bezeroak erakartzeko Beasaingo ordezkariak duen bazarik hoberena eskeinitako konponketa, man- tenimendu eta zerbitzu ospetsua da. Ur- teak pasa ahala bezeroak fidel mantentze- ko errezeta zera da: giza-ekipo jatorra iza- tea eta lan fina egitea (akatsak konpontze- ko ordenagailuen bidezko laguntzarekin, e.a.). “Hori da gure ahaleginetako bat. Orain arte, soluzioa zuen guztiari eran- tzun diogu”.

 Mikel Aramendi

SEGURA

“Liliku”ko pikotaren oinarria aurkitu da

Betidanik “Liliku” (hil-lekutik da-torrena) izenez ezagutu izan da Ar-maolako zubia pasata Zerain aldera da-goien gunea, hain zuzen Castillatik Se-gurara zetorren kaltzada nagusiko bi-degurutze nagusi batean kokatua. Ber-tan ba omen zen duela urte gutxirarte “pikota”, urkabe, urkamendi edo “erroiloa” izan zitekeen metro Erdiko harri zilindriko bat, Erdi Aroan ohiz-koa zen justizia basatiaren lekukoa. Beste gauza askorekin egin izan den bezalaxe, puskatu edo kendu egin zuten erreka dragatzeko lanetan, eta harrez-gero ez da haren arrastorik izan.

Beti izan da ordea aztarnaren bat aurkitzeko esperantza. Eta egun haue-tan erroilo horren oinarria aurkitu dute udaletxe-ko langile batzuk, erreka er-tzeko sasi-artean. Bere berezko itxura Santa Lutziko plazan dagoenaren mo-dukua izan zitekeen. Momentuz, Di-putazioko teknikoei aurkikuntzaren berri eman zaie eta proiekturen bat egin ondoren garai bateko urkabea berrera-i-kitzea litzateke asmoa.

Perretxiku eta luma erakusketa

Segurako Gazte Taldeak antolatuta, Apaiz-etxe-ko gela batean perretxiku eta luma erakusketa bana egon zen ikusgai urriaren 9an egun osoan zehar. Perretxikuak, gazteek beraiek aurreko egunetan bildutakoak, 50en bat mota-takoak. Lumak berriz, azken urteotan luma bilduma egiten ari den Joseba Etxeberria gazteak utzitakoa, guztira 100en bat hegazti desberdinenak. Era-kusketara herriko nahiz kanpoko 300 bat pertsona hurbildu ziren. Bertan ze-goien laguntza-potetxoari esker diru



Ezkio-Itsaso edo Gabirikoaren modukoa izango zen Segurakoa.

piska bat ere bildu zen. Beraien helbu-rua Segurako Gazte Taldea indartzea da honelako ekintza gehiago eginez. Dagoeneko pelotaren inguruko beste erakusketa bat martxan omen dute, baita herriko zenbait bildumazalaren lanak ere.

Kafe-hartze kantaria

Elorri Kultur Elkartek antolatuta pasa den urriaren 7an burutu zen I. Kafe-hartze Kantaria. Helburua, garai

bateko eta gaurko kantuak jorratzea, bide batez abesteko ohitura sortuz. Ka-fe-hartze kantari hauek ostiralero an-tolatze-ko asmoa dago, gaueko 9etan Elorri elkarte-ko. Herritar guztiek parte har dezakete.

Ikastaroak eta klaseak

Urriaren 17an hasita urte amairaarte, hariarekin zerikusia duen eskulan ikas-taroa izango da herriko Kultur Etxean. Bertan “makrame”, “frivolite”, gantxi-loa, “puntokruz, bulgaro eta mallor-kia”, besteak beste, nola egiten diren ikasteko aukera izango da. Iaz xesto-gintza eta pintura landu zituzten, eta urteberritik aurrera ere beste ikastaro batzuk izango dira. Udaletxeak dohai-nik antolatu ohi ditu ikastaro hauek eta herritar guztiek parte har dezakete, as-telehenetan 3retatik 5,30etara bilduz.

Bestalde, 7 urtetatik 13ra bitarteko Segurako, Zeraingo eta Mutiloako 32 haur hasi dira ingleseko klaseetan, 4 talde osatu dira eta ekainerarte iraungo dute klaseek.

Parroko eta bideolan berriak

Jesus Elorza aramaioarra izango da aurrerantzean Carlos Urbietak utzitako parroko lanetan arituko dena.

Bestalde, aspalditxoan kaleratutako Segurako baserri, Astesantu eta San Juan jaietako bideoez gain, egun haue-tan jarriko da salgai herriko ermita eta elizkizun guztiei buruzko bideo lana. Bideoa herriko tabernetan eskuratu ahal izango da.

 Joseba Telleria



LANCIA
ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46

ORMAIZTEGI



GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

LAZKAO

OSASIETA MANKOMUNITATEAK paper-bilketa kanpainazabaldud, Ordizian bezala Goierriko beste herri batzutan. Asmoa, ikastetxe eta bulegoetatik zaborte-gira zihozten paper asko berreskuratu eta bertziklatzea litzateke. Banketxe, akademia, eta edozein eratako bulegoetan kartoizko kaxa batzuk ipini omen dituzte, bertan paper txiki-txiki eginak bildu eta kontainerretara eramateko. Guzti honekin hutsune nabarmen bat bete nahi izan da, etxeetan baino paper gehiago erabili eta botatzen baita, izan ere, aipaturiko lekuetan.

OKULTUR ETA KIROL ELKARTEEI zuzendutako dirulaguntzak eman ditu Udalak jada. Guztira 3.780.000 pezeta banatu dira, iazko dirulaguntzen paretsu, Ortzadar eta Ordizia Rugby Elkartearrekiko murrizketa izan ezik. Hona hemen diru-kopuruak: Ordizia K.E.-ak, 1.200.000 pzt.; O. Rugby E.-ak, 325.000; Sta. Ana eta Oroith Abesbatzek, 300.000na; Boxing-ek, 250.000; Ordiziako Mendizaleak, 200.000; Jai Alaiak, Laguntasuna Errondailak eta Oiangu Pala E.-ak, 150.000na; Ordizia Eskubalo Talde berriak, 125.000; Ortzadar Argazki E.-ak, Jakintza Dantza Taldeak, Pintura Tailerrak eta Antzerki Taldeak, 100.000na; Urdaneta Dantza Taldeak, 80.000; eta, azkenik, emakumezkoen areto-futbolak eta Pausogaiztok, 75.000na.

OAINTZINAKO TRESNEN eta bildumazaleen bi Azoka Herriko egin dira dagoeneko Beti Alai pilotalekuan joandako hil ba-koitzaren lehen larunbatetan. Bien ala biek ere, makina bat bitxikeriazale bildu izan dituzte goizeko 10etatik gaueko 8etara. Euskal Herri osoko erakusleak etortzen dira eta denetik aurki daiteke bertan, 40 urtetik gorako zaharkinak, 300 pezetako salneurriko gauzetatik hasita. Geroz eta gehiago dira bertan hilabeteroko lehen larunbatetan postu bat eduki nahi dutenak eta baliteke lais-terrera pilotalekua txiki geratzea.

 **Aitor Calvillo**

OLABERRIA

Gaztaina dastaketa Santu Guztien egunean

Ohitura ez galtzeko urtero bezala aurten ere Santu Guztien egunean gaztiña dastaketa izango da. Gure herrietan gaztiña fruitu oso oparoa izan da; honen ondorioz aintzina-ko bazkal edo afal ostean gaztiña jatea oso arrunta zen. Fruitu honen abantaila bat da oso ondo mantentzen dela denboran zehar, eta danbolin bat edukiz gero gainera, erre eta bero-bero jaten zituzten gure arbasoek.



Errekaldeko gazte kuadrilak piztu zuen ohitura.

Baina zergatik ospatzen da gaur egun gaztiña dastaketa hau azaroaren leian?

Orain dela 30 bat urte Errekalde

auzoko gazte kuadrila batek gaztiña bila basora joateko ohitura zuen. Basoan hauek bildu ondoren, erre eta jan egiten zituzten. Urte horietako batean hilerri inguruan ari ziren gaztiñak jaten

eta hilerrira zihozten donostiar batzuk gazte haiek ikusi ondoren, gaztiñen truke diru mordoxka bat eman zieten. Hauek gustora baino gustorago jaso zuten dirua eta hurrengo urtean azaroaren leian berriro gaztiñak erre zituzten. Urteak joan ahala ohitura hau aurrera eramane zutenak Luistarrak eta Mariaren alabak (kristautasunari loturiko gazte jendea) izan ziren. Gaur egun Udaletxeak Guraso Elkartearekin batera antolatzen du dastaketa herriko hau.

 **Nagore Goiburu**

-EZKURRA -ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



Tfnoa.: 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

Beasaingo odol emaleen zilarrezko ezteiak

Beasaingo Odol Emaleen 25. urte muga iritsi da. Urte hauetan zehar eginitako lana baikorra izan da eta bere lanaren bidez ordezkariak hau Gipuzkoako mugituenetakoa da. Azken 25 urteetan zehar 13.862 odol ateraldi burutu dira, aintzinako San Migel klinikan eginitakoak kontutan hartu gabe.

1970. urtean 92 ateraldi burutu ziren eta 1993. urtean berriz 1.170. Beraz, ekintza honen urtez urteko igoera nabaria da.

Odol Emaleen ordezkariak 3 lekutan izan da azken urteotan. Hasiera batean Ateneoa zenaren lokala erabili zuten, San Inazio kalean; ondoren udaletxeko baxuetara pasa ziren eta gaur egun Etxe-Ubi eraikuntzako baxuetan dago.

25. urte muga hau ospatzeko urriaren 22an zenbait ekintza ospatuko dituzte udazken kulturalaren programazioaren barruan. Ekintza hauek hildako odol emaleen omenez ospatuko den meza batekin hasiko dira eta beste ekintza batzuen ondorenean Zaldiak jabetxean

ospatuko den bazkarian elkarteko lehen odol emaleak omenduko dituzte.

Ostadar Dantza Taldea Bartzelonan

Beasaingo Ostadar Dantza Taldea Bartzelona aldean ibili da urriaren 8 eta 15a bitartean. Pineda del Mar-eko Nazioarteko dantza Txapelketan parte hartu eta Bartzelonako hainbat herritan emanaldiak ematea zuten helburu beasaingarrek. Baina bidaia egin baino bi egun lehenago txapelketa bertan behera gelditu zela jakin, eta ekitaldi gehiago bilatzen hasi ziren dantza taldekoak.

Bidaia hau egin ahal izateko aurrez nahiko lan egin behar izan dute. Antzizar auzoko jaietan jarritako txozna, errifak saltzen... eta guzti horri esker, Bartzelona aldean gure kulturaren berri zabaltzeko ahal izan dute.

Usurbe Zinea urte bukaerarako

Abenduaren 23rako dago iragarrita Usurbe Zinearen inagurazioa. Hainbeste zeresan eman duen proiektua beraz, gauzatzear dago. 500era ez da iritsiko eserleku kopurua; 350 bat behe-

ran eta gainontzekoak goran. 80 metro karratuko eszenatokia eta orkestrarentzako lekutxoak ere izango da. Inagurazio ekitaldian herriko musika eta dantza taldeek hartuko dute parte.

Udalak antolatutako tailerrak

Udan etenaldia izan ondoren, berriro ere martxan jarri dira Kultur Batzordeak antolatutako tailerrak. 4 tailer mota egongo dira aurtengo: zeramika eta esmaltatuen tailerra, mozketa eta joste tailerra, marrazki eta pintura tailerra, eta antzerki tailerra. Azken hau, berria da. Gazteengana eta irakaskuntzara loturik dauden profesionalen zuzendua dago. Bertan, talde kohesioa, lasaketa, arnasketa, gorputz espresioa, ahotsoa, kontzientzia eta espazio sorkuntza, pertsonaien ezaguarazpena, inprobisazio teknika eta abar landuko dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxera bertara joan edo 885051 telefonora deitu.

Izaskun Salazar

GABIRIA

Giro ederrean ospatu zen Jubilatuen Eguna

Joan den urriaren 9an ospatu zen Udalak gure herriko jubilatutako guztiei eskaini ohi dien festa-eguna. Ospakizunari hasiera emanez, meza nagusia izan zen, bertan Josebak zuzentzen duen Urretxuko koroak esku hartu zuelarik. Jarraian, herriko dantzarien saioa eta honen ondoren bazkaria bertako Ostatuan.

Ospakizun honen barruan opari berezia egin zitzaion orain arte opa-
20-GOIERRITARRA



Herriko zenbait jubilatutako, eta horien artean Xeapin.

ririk jaso ez duten eta bertan zeuden Gabiriko bi zaharrenei, Zoazolako Xeapin eta Juxtari, hain zuzen ere.

Azkenik, bazkal ondoko giroa gehixeago alaitzearen, herriko bi bertsolariak, Euxebio eta Iñaki, aritu ziren bertsotan eta Irubideko Pakea eta bere lagunak soinu jotzen.

Datorren urtean ere, aurtengo izan diren guztiek egun hau zoriontsu ospatzeko osasun eta patxada izan dezatela.

Gabino Murua

Pandero ikastaroa martxan

Uda aurretik hasitako bideari berriz ekinez Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartek bi eskuei txistu eman eta pandero-ikastaroa martxan jarri du. Urriaren 18 eta 25ean eta azaroaren 8, 15, 22 eta 29an arin-arina, fandangoa eta kalejirako erritmoak lantzeko aukeradago. Ordubeteko saioak izango dira eta mailak berriz bi: lehenengoan ezer ez dakitenak eta bigarrenen "hobe-kuntzakoak" edo zerbait badakitenak.

500 pezetaren truke oinarritzko kolpeak ikasi eta hortik aurrera, norberaren gogo eta saioen arabera, panderoa gehiago edo gutxiago, hobeto edo okerrago astintzeko aukera hor dago beraz.

Lazkao-Txikiren omenezko jaialdia

Hil honen 21ean, ostirala, gaueko 10.30etan, Lazkao-Txikiren omenezko bertso-jaialdia izango da Aleria Zinemana.

Hainbeste baztar alaitu zizkigun "antzar" kantaria gogoratuz 22 bertsolari gazte eta "zahar", goierritar eta kanpotar, Lazkao-Txiki oso gertutik ezagutu zutenak denak: Joxe eta Xe-

L A Z K A O n
— 1994ko Urriaren 21ean —
**LAZKAO TXIKIREN OMENEZ
JAIALDIA**



**Lazkao Aleria Zinemana
Gaueko 10,30etan**

Antolatzailea: **LAZKAOKO HERRIA**
Laguntzailea: **EUSKADI IRRATIA**

baxtian Lizaso, Joxe Agirre, Imanol Lazkano, Txomin Garmendia, Joxe Luis Gorrotxategi, Iñaki Murua, Mikel Mendizabal, Xabier Amuritz, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Jon Sarasua, Jokin Soroazabal, Joxe Mundeate, Xabier Narbarte, Altzo Txiki,

Joan Inazio Begiristain, Xabier Zeberio, Euxebio Igartzabal, Patxi Iraola, Florentino Goiburu eta Patxi Etxeberria.

Lagun kuttun baten oroitzapenak daukagun onena atera arazten digunez guztioi, 22 adiskide hauek ere, ziur saiatuko direla lanean fin!

Saioa Lazkao herriak antolatua da eta esan beharra dago ekintza bakarra ez dela izango ostiraleko hau: geure herrian nahikoa ahul daukagun bertso-zaletasuna bizkortu eta indartzeko beste hainbat ekintza ere burutu nahi dira aurrera. Bertso-paperak landu, Lazkao ume eta gazteak zaletu, Lazkao-Txikiren irudi bat ipini herrian eta abar.

Talde erabat irekia da eta geure herrian bertso-zaletasuna indartzeko helburuaz bat etorri eta lanerako prest zaudetenok atea zabalik daukazuenez, informazioa Udaletxeko Euskara Zerbitzuan eska dezakezue.

 **Mari Joxe Madariaga**

ITSASONDO

Ruandako lurraldetik eskerrak emanez

Herriko Ruandaren Aldeko Batzordea agiri bat buzoneatu du etxe guztietara. Oraingo hau ez da diru-eskea edo Ruandako egoeraz informatzeko egina, eskerrak emateko baizik. Eskerrak eman, batez ere, uda parteko diru bilketan herritarrek agertu zuten eskuza-baltasunagatik. Izan ere, uztailan 395.620 pzta. jaso ziren; abuztuan, 820.140 pzta (horietatik 85.000, 6 lantokietatik eta beste lantoki batetik ko-

puru ezezaguna); geroztik beste 100.000 pzta. (horietatik 4.000, 8. mailako ikasleek). Guztira 1.315.760 pzta. jaso dira.

Diru guzti hau jasotzean jendearen eskuzabaltasunaz harriturik zegoen Leonardo Esnaola lazkaotarrak zuzenez Ruandara eraman zuen, eta berak idatzitako eskutitzean dioenez, diru hori "jateko gauzak erosteko, es-

taltzeko mantak, medikamenduak eta errefuxiatu zelaietan beharrezko zaizkien ekintzetarako" erabilia izan da. Inoiz baino premi larriagoan daudenez oso ondo etorriko zaizkie laguntza guzti horiek. "Eskuzabal izan eta ez aspertu Ruandari laguntzen", esanaz bukatzen da agiria.

 **Ordezkoak**

Ana Belén
ILEAPAINDEGIA

Gurutze, 2
88 26 31

LAZKAO

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe

IBABE INDUSTRIALDEA ☎ 888101 LAZKAO

REHAU



AZKARATE

POL. INDUSTRIAL IBABE
TFNO. 88 81 01 LAZKAO

Lazkaoetxe: agroturismo eta merindatoki

Baserri handi bezain bikain hau Aiestaran-erreka auzoan dago, Arkakatik gertu, Zaldibia, Ataun eta Lazkaoen arteko mugan. Puntu egokian, bestalde, mendia eta naturarekin harreman zuzena nahi lukeenarentzat. Beraz, aukera-aukerakoa da hartu duen ihardun-modu berria bideratzeko.

Instalazio moderno eta erosoz hornitua dago, bere baserri- kutsu eta izaera propioa galdu gabe. Jangelan 70 bat lagun kabituko dira aldiko. Agroturismoari dagokionez, lau logela eder dauzka, bakoitza bere bainuarekin. Menua hemen bertako egoskari eta jakiz osatuko dute batez ere. Dela baserriko oilasko, arku-me, txuleta, babarrun, sesina, gazta, etab.

Aldo Sadaren erakusteka

Aldo Sada 43 urteko donostiarra da eta hauetatik dextente daramatza poliesteresko pertsona-erretiratuak tainu naturalen egiten. Santa Fetako festen barruan hor eduki ditugu ikusgarri bere panpinak. Kale gorriko bizitzari lotuak daude: prostitutak, agurak, haratonako saltzaileak, etab. Esan ezin ahalako arrakasta izan du erakusketa honek, jende ugari ikusi duelarik.



Auresku txapelketa

Aurten jokatu da bigarren aldiz Izutueta Auresku Txapelketa, arrakasta handiz jokatu ere. 19 lagunek hartu zuten parte eta jendetza handia egon zen dantzarietara begira. Bergarako Eduardo Muruamendiaraz izan zen garaile; 2. Elgoibarko Mikel Legorburu; 3. Errenteriko Jon Maia eta 4. Jose Ignazio Bigueras donostiarra.

Amaia Urkolak irabazi mondeju lehiaketa

Santa Fe bezperan egin zen mondeju lehiaketa guztiz arrakastatsu suertatu zen, partaide ugari eta ikusle gehiago bildu zelarik. Zuloetako Amaia Urkolak atera zen garaile; 2. saria Ramon Sukiak eraman zuen. 3.ak, berriro ere, Zuloetarako bidea hartu zuen, Franzis-

ka Belokik, Amaiaaren amak, jaso baitzuen. 4. Unanubietako Olano anderea izan genuen, eta 5. Jexux Mari Beloki. Denak ere kalitate handikoak adituen hitzetan. Mondeju dastaketa-ekin eman zitzaion amaiera ospakizunari.

Manifestazioa

Amnistiaren aldeko batzordeak antolatutako, urtero bezala, manifestazioa ere izan da festetan: urriaren 7an. Herriko kaleak pasa ondoren frontoian amaitu zen. Besteak beste, bertsolariak eta Anje Duhalde kantaria izan ziren protagonistak.

Festak amaitu dira

Amaitu berriak dira. Printzipalena bakean pasa direla esatea izango da. Programari eta beste puntu batzuei buruz, dena den, badaude kontrako iritzia. Norbaitek hutsunerik ere aipatu du: adibidez, bertsolaririk ez jartzea edota bi ekitaldi ordu berean egokiaraztea. Horrez gain, antolaketari buruzko zurrur-murrurik ere badabil, baita kostuak handiegiak izan ote diren ere. Hurrengo alerako gauza guzti hauek argitzeko moduan izango garela uste dugu.

 **Rufino Iraola**

LEGORRETA

Eskola kontseilua berritu da

Ugaro Herri Ikastetxeak Eskola Kontseilua berritu du ikasturte honetan. Taldea honako pertsonen eratuak gelditu da: Irakasle guztiak. Zuzendaria: Rosa Etxabe. Ikasketa burua: Mirari Arregi. Idazkaria: Anttoni Nazabal. Udaletxetik: Xabier Iraola. Gurasoak: Pili Quijada, Migel Anjel Amenabarro, Mari Karmen Irastorza, Jose Mari Zugasti, Milagros Zunzunegi, Lurdes Gaztañaga, Mari Anjeles

Aranburu, Kontxi Olano, Gema Lasa, Mari Karmen Plazaola, Izaskun Zubeldia, Ana Mari Rodriguez eta Lurdes Lasa. Ordezkoak: Isabel Alvarez eta Paqui Herrera. Irakasleak: Mikel Gerriko eta Aritz Etxeberria.

27an hasita Kultur Astea

Legorretako Udalaren Kultur Batzordeak antolatuta eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Pulit-zer? Argazki El-

karteak, Bilkoin KKE, Herri Ikastetxea, Guraso Elkarteak, Iupi-Iapa Astialdi Taldea, bertako Parrokia eta Gazte Kontseiluaren laguntzaz aurtengo herriko Kultur Astea ospatuko da urriaren 27, 28, 29 eta 30ean. Egitaraua agendan daukazu irakurle.

 **Josune Amondarain**

Ataun Kirol Elkarteak

Ataun Kirol Elkarteak (AKE) sortu izanaren berri eman genuen hemen. Elkartea berria zertan den, zeinek osatzen duten, helburuak... eta labor-labor bada ere hobeto ezagutu nahian, AKERen Zuzendaritzako lehendakaria den Jexux Goikoetxea "Goiko"-rengana jo dugu.

Azken urteetan, Joxemiel Barandiaran Eskolan dabil-tzan bitartean, eskolarteko kirol txapelketatan ikasleek duten parte hartze garrantzitsua eta gero lan horrek noiz-tzen duen etena aipatu digu lehendabizi Goikok. Oso gutxi dira, behin Goierriko beste ikastetxe batera joan ondoren kirol praktika horri eusten diotenak. Eta hauetatik ia guztiak, mutilak dira gainera.

Iaz Gipuzkoa mailan federatu bezala ibili zen talde bakarra, pilotakoa izan zen. Auzoeta Udal Kiroldegia erabiliz, sei pilotari izan genituen txapelketa desberdinetan. Bestalde ordea, herrikoentzat antolatutako pilota, pala eta areto futbol txapelketetan jende pilo bat aritu zen. Hauen artean, palaz jokatuz behintzat izan ziren emakumezkoak, eta neska talde bat berriz, areto futbola gustokoa zutelako, zapatuero kiroldegian entrenatzen ibili zen.

Guzti honek eraginda sortu omen da Ataun Kirol Elkarteak. Kirol desberdinen lana koordinatuz, ataundarrentzat prestatutako kirol ekintzak beregain hartu eta bestalde, federatu mailan ere partaidetza areagotuz.



Horrela bada, lehen pauso hauetan, kirol elkarteak zuzenduko lukeen lan talde bat osatu zen, 12 lagunekoa bera. Edozein Zuzendaritzatan gertatu ohi denez, hemengoan ere euren artean zenbait kargu izendatu ziren, era honetara: Lehendakari, Jexux Goikoetxea; lehendakari-ordea, Koldo Aldabe; diruzaina, Jon Etxeberria; eta idazkaria, Iñaki Imaz.

Dagoeneko, federatu alorrean Gipuzkoan zehar areto futboleko eta pilotan ari dira. Areto futboleko 15na jokalariz osatutako bi talde dira; bata neskena, Jexux Etxeberria eta Aitor Sukiaren ardurapean eta bestea mutilena, Julen Urrutia entrenatzaile eta Josu Olano laguntzaile dituenak. Pilotan berriz, eta iazkoari jarraituz, Justo Dorronsororen ardurapean zazpi pilotari dabil-tza Gipuzkoako hainbat txapelketatan.

Horrez gain ordea, Goikok garbi dauka, herri mailako pilota, pala eta areto futboleko txapelketek aurtengo segida izan behar dutela, eta gainera

mendi irteera, bizikleta ibilaldiak eta garaiean garaiko beste edozein mota-tako kirola ere antolatu egin nahi dutela.

Behin guzti hauetatik aritu ondoren, herritarren eta erakundeen egin beharra ere ez du ahazten ordea, Goikok. Alde batetik, dagoeneko AKE-k duen 200 bazkideko kopurua 300era iristea espero dute eta beste aldetik udalak dirulaguntza eskeini badu ere, beste toki batzutan ere zulatu beharra derrigorrezkoa dela esan digu.

Auzoeta Udal Kiroldegia

Hemendik aurrera, zapatu arratsaldeetan eta igandetan egun osoz, kiroldegia edozeinentzat irekita izango da, aurrez hartutako orduetatik kanpo.

Bestalde, Pako Urrestarazu bertako arduradun berriak jubilatuentzako soinketa ikastaroa hasia du dagoeneko, astearte eta ostegunetan; gainontzeko guztientzat berriz, astean hiru egunetan izango da.

 Joxe Begiristain



✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, batz bestea, 2.000 pzta.
☎ 18 00 19 ATAUN S. Martin

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

Mendi-irteerak

OKE-ko mendiko saila hasia da bere iganderoko irtenaldiak antolatzen. Aurreko igandean Legazpiko Gorrostiagarakoa prestatu zuten, oraingoan Artubiarako asmoa dute, eta datorrenean Ganbo gainera joan nahi lukete.

Irteera horiek, esan bezala, igande goizetan izaten dira, Irizar zaharraren partetik eta gidari Txema, Kazka, Lekue, Borde eta beste hainbat ibiltzen dira. Eskertzeko lana, benetan txalogarria azken urte mordoxka honetan egiten ari direna, eguraldia ona edo txarra izan, urritik hasi eta uztaile ingurura arte, gazteen artean naturaren ezagutza eta laguntarean balioa bultzatuz. Baina merituari dagokionez, bada alderantziz pentsatzen dutenik ere: gazteak direla meriturik handiena dutenak, zaharxeago horiek mendira eramanez!

Ez dira horiek, ordea, azken egun



OKE-ko mendizaleak Auñamendi (2.504) gainean.

hauetan mendian dabilzan bakarrak: perretxiku-biltzaileei eta ehiztariei ere iritsi zaie, azkenean, beren garaia. Kontuz ibili beharko dute, bada, OKE-ko mendizaleek (eta edonork) ehiztariei usorik izutzen, bestela, gozoak jarriko zaizkigu gure eskopetadunak!

Koke Lasa

Urrutixegoko mendiei begira ibili ohi dena, denok dakigu, Koke Lasa da. Iaz Cho Oyu-ko gailurra zapaldu ondoren, udaberriko beste asmo bat darabilte buruan: 8.035 metro dituen Gasherbrum II-rako espedizioa. Oraindik lan asko egin behar dute hara joan aurretik, eta geroago ere izango dugu horren berri.

Gas naturala

Zuntz optikoaren sarea egiteko lanak gure herrira iristear dauden honetan,

Udalak jakinarazi du ahalegin guztiak ari direla egiten bi edo hiru urte barrurako Ormaiztegin gas naturala izan dezagun. Ez da gaizki etorria izango, garbia izateaz gain naturari kalte gutxiago egiten dion energia-iturri hau.

 Iñaki Amundarain

IDIAZABAL

Zain dezagun mendia

Gaínean dugu udazkena, hirugarren urtaroa. Udazkena aldirik emankorre-na eta aberatsena dela esango genuke, hau ez bada hori, beti egoten baita fruitu edo elikagairen bat biltzeko aukera. Ehiza nola perretxikuak aitzaki hartuta, mendian ibiltzeko ohitura geroz eta errotuago dago gure gizartean. Oraingoxekoak dira ere sagar, udara eta pikuak, gaztainak eta intxaurrak. Oraingoak uso paseak eta ehiztarien paseak. Bi hitzetan, udazkenean joaten da jende gehiena mendira eta udazkenean jasaten du naturak urteko astindurik handiena.

Hori dela eta, Idiazabalgo Mendi Elkartekoek, gaur egungo ohitura eta bizitza-erritmoa kontutan izanda, eskuak burura bota dituzte mendira joan eta aurki ditzazkegun basakeriak iku-

sirik. Hemen zaborra, han pista, zarata eta kutsadura, dena mendia itxuraldatuz eta ingurunea kontutan izan gabe.

Honen aurrean neurriren bat hartu behar zela eta Udalari ondoko proposamena luzatu dio: "Gure ustez okerrak eta mendiaz erarik osoenean gozatzeko kaltegarriak diren erabilera hauek eragozteko muga batzu ezartzea eskatu nahi dugu. Uste dugu hasieran aipaturiko ordenantza batean debekatu egin behar dela herriarenak diren mendi bi-deetan motoredun ibilgailuetan denborapasakoetan ibiltzea: bidean dagoen azken baserritik aurrera debekatu genuke erabilera. Debekuan ez lirateke sartuko laneko kontuetara doazen ibilgailuak eta ezta mendia bera edota pertsonen osasuna zaindu eta segurtatzeko joandakoak ere. Arris-

kutsuagoa da, gainera, honelako erabilerak onartuz gero, laster, kamino hobe eta zabalagoak, aparkatzeko lekuak eta abar eskatzen hasiko direla, eta honekin orain arte ezagutu dugun mendi ingurunearen izaera bera legoke arriskuan".

Udalak, gustora jaso zuen Mendi Elkartearen proposamena eta ondorenean baita onartu ere.

Idiazabalgo udalak natur ingurunea babesteko beraz, aipaturiko debekua gauzatu du, erabilera desagokia edo neurritz kanpokoa eta zoruaren hondamena gutxitzeko asmoz.

 Aloña Galarraga

Ordiziako rugbylarien ongizate eta ondoezak

Ordiziako Rugby Elkarteko hiru kiderekin izan gara, Alberto Muñagorri, Jabier Perlines eta Jorge Etxaide lekuko, talde horren arazoak argitu nahian. SOS bat zabaldu berri dute, jokatzeko zelairik ez dutela eta.

Ez gara horretaz bakarrik aritu, ordea. 21 urte inguru bada ia hain gustoko duten kirol jaio berri honek lehen pausak eman zituela. Gaur egun ikasle jendetik hasita, adin guztietakoak biltzen dira "harrobi"ra. 120ren bat fitxadun badira eta kopurua hazten doa.

Rugbyan hasteko adin aproposena zein ote den galdetu diegu. "Ahal den gazteenak inguratzea da egokiena, 12-13 urteetatik aurrerakoek dute lekua". Beti esan izan da rugbya gizonen izenak dela aproposagoa. Hori egia al den? "Begara, arazoak leudeke mutilek neskekin jokatu balute, kirol guztietan bezala; bistakoa baita nor aterako litzatekeen galduan, baina bakoitza bere sailean sartzen dela, bai batzuentzako bai besteentzako da kirol aproposa".

Dena den, denak zelai eza salatzen dutela, ezeroso sentitzen direla diote, behin eta berriz.

G.- Zuen zelaiak zer dio, zuek zer diozue eta Udalak zer?

E.- Guk zelaiak dioena baino ez diogu, ezertxo ere esageratu gabe eta sinesten ez duenak begiradaxo bat bota diezaiola, hots, proposamen batzuk ezta-



baidatu, bultzatu eta burutzeko ahaleginak egiten ari garela eta egiten jarraitzeko ere kupidarik ez dugula, arazoa sustraiaietatik jorratu eta rugby munduan Ordizia gorengora altza. Askotan, ikusi nahi ez duena baino itsu haundiagorik ez omen da eta.

G.- Oraingo egoerarekin gustora ez, beraz.

E.- Nola egongo gara ba, inori kendu nahi ez eta gurea eskatzen dugunoi ateak ixten badizkigute? Gure eskubideetan gaude inori gaitzik egin gabe eta kontuak ezin du bere honetan geratu. Horretan ahalegingo garela ez dudarik izan. Hau lortu arte ditugunak eta gehiago emango ditugu.

G.- Lehorrean ala bustian duzue nahiago?

E.- Nik galdera hori aldatu egingo nuke. Zaldi gainean ala mando gainean duzue nahiago zelaian ibiliko bazerate? Hots, hanka zulotik hanka zulora ez dagoela ezer, dena zulo beraz. Egoera

tamalgarri hau konpondu egin nahi dugula behingoz alegia.

G.- Aurrera begira zein helburu dituzue?

E.- Udalak apenas laguntzen bagaitu ere, guk geurea emateko gauza garela argi daukagu eta behin eta berrito erakusten ari gara, Ordizia gorenera igotzeko gai garela, aldi berean herritarren aurrean gure eragozpen eta tira-biren erantzunkizuna jakinaren gainean utziz, gure ondoeza salatuz alegia.

G.- Zer esan rugbya gustatu baina pausoa emateko dagoen horri?

E.- OREa ezagutu dezala eta gurekin hasi dadila pittinka-pittinka gustatzen zaion horretan, ez zaio damutuko. Nabarmentzen gaituen lagunarte beroarekin ondo pasatzeko aukera polita izango du.

Jon Aiestaran



OTEGI-UNANUE

ERAIKUNTZA ORO EGITEKO PREST
Etxebizitzak berriak salgai Ordiziako Elkano kalean
Bekokale 17-1.
ITSASONDO ☎ 16 02 22

Carasa, Cilveti, Lacort y Cia., S.A.

Aseguruen Korreduria
Martin Alustiza

Ekaitz Bulegoak ☎ 88 69 53
Domingo Unanue, 3 ORDIZIA

Julian Murua zaldibitar zenari

1

Nire lagun maitea
ezbeharrez hila
elkarrekin izanak
hartueman mila
Estebanen semea
nolako mutila
zu hil zinanez geroz
tristuraz nabila
saiatuagatikan
alaitasun bila

2

Julian nola galdu
guk zure oroitz
baina ezin besterik
ez bada otoitza
zu hiltzeko oraindik
bazen nahiko goiza
hari hori mozteko
zai zegon goraiza
heriotzak beregan
hartu zaitu aisa.

3

Heriotza sar zaizu
jo gabe aldaba
ikus ezin den indar
suaren galda da
horrela gertatzea
nahiko tamala da
amaitu dezu zeure
munduko bolada
minez lagun emazte
seme ta alaba.

4

Ezin galdu inork zuk
egindako gaitzak
beti ahal den txukunen
zinduzten ekintzak
arrazoian ereduz
neurrizko hitzak
meriturikan asko
badauka Ernaitzak
bereak ditulako
holako emaitzak.

5

Gauza gehiago ere
nahi nituzke aitor
ez zinan zenbait bezain
berritxu ta kottor
egiaren emaile
gezurretan opor
aberriaren alde
leial ta mugikor
ezin esplika zaitut
zinan bezain jator.

6


Kaixo Patxi esanaz
irripar txikian
ile beltza estalgai
zeure bekokian
inoiz kontu-kontari
hizkuntz egokian
elkarrekin topatu
ohi ginan tokian
inor nola zirika
zuk bazenekian.

7

Lanetikan etxera
etxetik lanera
inoiz ez zait ahaztuko
gure ibilera
parrandan ere zerbait
saiatuak gera
inoiz sartzen baginan
taberna aldera
ondo berotu arte
barrengo kaldera.

8

Apalondoan sarri
saioa jokoan
beti norbaitzuekin
eginik topo han
erlojua ere inoiz
ahaztu holakoan
orduak aisa pasa
taberna txokoan
nahiz ta biharamonean
damua kolkoan.



9

Jokoan ez zinaden
pertsonek zabarra
nonahi izandu zera
hain zintzo samarra
ez zenduen tirako
besteren hamarra
jo gabean askok hain
hasarre kamarra
galdu edo irabazi
garbi hatzamarra.

10

Olegi ta Ernaitza
gu bi baserritar
sarri ibiltzen ginan
broma ta irrifar
nor bere eginkizunak
zintzo bere bizkar
zeure kotxean inoiz
eraman ta ekar
ginan biok estimuz
genduenak elkar.

11

Entzun nuen unean
hil dela Julian
anaiak esanikan
etxe atarian
esan nion egia
ez leikek agian
baietz erantzun zidan
informe garbian
bihotzetik laister zen
negarra begian.

12

Zure ezaupideak
ditugunai esker
inoiz ere otoitzez
ez gindezke asper
baina ezin gentzake
besterikan ezer
eta gureztat ere
bidean da hauster
zuk itxaron patxadan
hor gaituzu laister.

Patxi Iraola

GOIERRITARRA



88 96 12



Inprimategia

EGUZKI

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN



Goieritik Rock'n'rolla Nubes Bajas-ekin

Karlos eta Miguel (kitarra eta ahotsak), Javi (baxua) eta Karlosek (bateria eta pianoa) osatzen dute Nubes Bajas izenpean Beasain eta Lazkao aldetik datorkigun laukotea.

Pasa den martxoan grabatu zuten maketa hau Loiolako Cebertrak estudioetan, bere kaleratzea nahikoa luzatu den arren. Argi eta garbi ikusten da laukote honek Rock'n'roll-arekiko duten zaletasuna, maketako 6 abestietan, "el ente" eta "Rutinas" abestietan erakusten diguten bezala.

Rock'n'roll eta "garage" soinu arinak gogoko badituzu baduzu diru pixka bat esku onetan uzteko aukera maketa honekin, beraiek Nubes Bajas... edo nahi baduzu, NBS.



Erroetatik... Mikel Laboa

Udazkenerako hamar abestiz osaturiko opari batekin datorkigu Mikel Laboa bere 14. lan honekin. Dotorea, jantzia bere osotasunean esango nuke nik, geroago hitz egingo dugun abestietatik hasi eta diskaren aurkezpenerraino. Zumetaren lan batek, abestiak marrazki bihurtuz ornatzen du azala, aurkezpena are ederragoa eginez, barnean berriz abestien hitzez gain Joseba Sarrionaindiaren poema batekin aurkituko gara, hasera ezitia.

Iritsia da diska entzuteko ordua, inoiz baino xamurragoa etorri zaigun Mikelen azken lana. "Hegazti errariak" da diska irekitzeko ardura hartzen duen abestia, Josetxo Silgueroen saxoak eta Iñaki Salvadorren pianoak goxo-goxo biltzen dituelarik Mikelen ahotsa. "Nao es tu, facultad de sentir"-ekin Portugalgo leiho

batetik begiratzera eraman eta sentibera bihurtueraziko gaituelarik. Goizuetako Trabukoren historiak kontatu ondoren Kataluinari omenaldirik ederrena egingo dio "Assentiré de grat" abestia medio.

Diska honetako momenturik alaiena "Oroitzen zaitudanean, ama" kantak ekarriko ditu, beste hainbatetan Josebaren poemak jantzi aproposak izanez. Datorren abestiak ordea, lan horretako unerik gorenera eramango gaitu, Mikel Laboaren ahotsak "Gure oroitzapenak" nahiz "Mugak" kantetan barneko sentimendu guztiak gatazka bizian jarriko dizkigularik, orduan jabetuko gara hauen ederraz, 2. honetan Camarón de la Isla eta Jhon Cageri omenaldi bat eskainiaz. "Baga Biga Higa I-II" eta "Gure Bazterrak" birmoldaturiko abestiekin erabat bereganatuko gaitu Mikelek eta bide batez gure sentimenduak ere.

Lan honek, behin baino gehiagotan arnasa sakon hartzera eramango zaituen diska honek, abeslariaren erroak non eta zertan diren erakutsiko dizu, baita beste kulturekiko errespetua edo elkartasuna adierazteko modu berezi bat ere, askok ez bezala bere ahotsak, abesti hauen bitartez bait dute hori gauzatzeko iaotasuna.

Lehenengo abestitik azkenaren agurrerraino, oraindino inork gutxik hobetuko dituen 44 minutu.

Artza

Fotozaharra



Sail hau Itsasondoko eskola nazionaletako 1928-1929 ikasturteko umeen argazkiarekin estreinatzen dugu. Itsasondoko Jexux Lete, "Ibai-Ertz"-ek, bidali digu, maixua Don Marcos Perez de Mendiguren zutela argituz. Argazki hau Itsasondoko elizako garai bateko zimitorio txikiaren aurrean aterea dago.

Ezkerretik eskubira beti, goiko lehen iladan: *Miel Mari Irizar, Inaxio Iturrioz, Bixente Aranburu, Bittor Lete, Joxe Mari Goenaga, Manuel Mendizabal, Inaxio Mendizabal, Joxe Mari Mendizabal eta Martin Garmendia.*

Bigarren lerroan: *Xabin Benito, Exteban Mujika, Teodoro Lete, Eduardo Aranburu, Jexux Perez Mendiguren (maisuaaren semea), Joxe Arbilla, Kelmén Sarasola, Jexux Elizegi eta Fernando Iturrioz.*

Behean eserita: *Miel Zeberio, Jexux Lete, Leokadio Apaolaza, Luix Arbilla, Rafael Letamendi, Juan Apaolaza, Joxe Mendizabal, Patxi Mendizabal, Jexux Garmendia eta Mikel Mujika.*



**Euskadi berritzearekin
elkar zaitez.**

